

Uraren ziklo osoaren zerbitzua arautzeko Eskoriatzako Udalaren ordenantza

SARRERA

2020ko martxoaren 24an, udalbatzarrak erabaki zuen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Oinarrizko Legearen arabera, herriko uraren ziklo osoa, hau da, “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku lagatzea, baita behar diren inbertsioak egitea ere. Helburua hori izanik, Eskoriatzako Udalak, bere titularitatepekoak diren ur-emakida, ur emarien gozamen guztiak, azterlanak, proiektuak, sareak, instalazioak eta partzuergopeko zerbitzuak eskaintzearekin lotuta dauden gainontzeko baliabide guztiak, ekarpenez Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren esku uztea erabaki zuen.

Hitzarmen hartan hauxe ezartzen zen: “Indarrean dagoen legeriaren arabera, Ur Kontsorzioak, Hitzarmen honen xede diren helburuei eta zerbitzuei datxezkien ahalmenak, eskumenak, aginpideak, eskuduntzak, eskubideak eta obligazio guztiak izango ditu”. Zehaztearren, Kontsorzioaren esku utzi zen uraren ziklo osoaren tasak kudeatzeko, kitatzeko eta biltzeko ahalmena.

Kontsorzioak uraren ziklo osoari dagokion kudeaketa bere gain hartu duenez, Ordenantza egokitu beharra dago, bai zerbitzuaren kudeaketari dagozkion alderdietan bai zerbitzuarengatik aplikatu beharreko tarifetan. Udalak konpromisoa hartu zuen Kontsorzioak proposatzen zion Ordenantza –orain arte esandakoa jasoko lukeena– onartzeko. Horren ondorioz, Zerbitzuaren tasei dagokienez, XIII. Atalburuak eta Eranskinak, tasa-ordainarazpenerako eta tasak egunerako erabili behar den tarifa-sistema jasotzen dute, 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikulua ezarritakoaren arabera lan hori Gipuzkoako Ur Kontsorzioak berak egingo baitu.

Orain arte azaldu denaren ildotik, ondoren, Uraren Ziklo osoaren Zerbitzua Arautzeko Ordenantzaren artikulua eta 2020ko urriaren 1etik aurrera indarrean sartuko diren tarifak – Gipuzkoako Ur Kontsorzioak onartu dituenak– hitzez-hitz transkribatzen dira.

Uraren ziklo osoaren zerbitzua arautzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren ordenantza

ATALBURUA. ARAU OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Uren Zerbitzuko abonatuaren arteko harremanak arautzea, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zerbitzuaren titularra den udaletan, bertan zehazten direlarik alde bakoitzaren oinarriko eskubideak eta betebeharrak.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa toki erakunde bat da eta bere helburuen artean, bere iharduera eremuaren barruan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak eskaintzea jasotzen da, horrela nahi duten udaletan, betiere, une bakoitzean indarrean dagoen Estatuko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedian jasotzen diren xedapenen arabera.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurreko pasartean aipatzen diren zerbitzuak erregimen zuzenean kudeatzen ditu Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. Sozietatearen bidez.

Ordenantza hau Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Uraren Ziklo Osoa kudeatzen duen udaletan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei aplikatuko zaie izaera orokorrean.

2. artikulua. Arau orokorrak.

Edateko uraren etxeko hornidura zerbitzua Ordenantza honetan xedatzen denari egokituko zaio, bai eta «Eraikuntza-Kode Teknikoa» 314/2006 Errege Dekretuari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak onarturik dauzkan, eta aurrekoekin kontraesanean ez datozen, gainontzeko Ordenantzetara egokituko ere.

Zerbitzua eskaintzean irabazi asmoa baztertuta geratzen da, eta oreka ekonomikoari eutsi behar zaio, lege onartutako eta autofinantzaketa ahalbideratzen duten tarifak aplikatuz.

3. Artikulua. Eskuduntzak.

Ur horniduraren emakida, bere modalitate desberdinetan, eta isurketen hustuketa eta trataera Gipuzkoako Ur Kontsortzioari bakarrik dagokio eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. izango da gainontzeko lanak bere kargura kontratatuko dituen dagokion Hornidura Kontratuaren bidez eta, halaber, zerbitzua burutzeko baldintzak arautuko ditu.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren, Gipuzkoako Urak, S.A.-ren bitartez, ahalmenak izango dira:

1. Edateko uraren hornidura eta saneamendu obren proiektuak ikuskatzea.
2. Hirigintza planei eta urbanizazio proiektuei buruzko txostenak ematea eta, hala badagokio, behar diren aldaketak bultzatzea, dagokion area, sektore, poligono eta gestio unitateko ur banaketa eta saneamendu sareei dagokienez.
3. Sare orokorretatik hornitu behar diren eraikinetara ipinita dauden edo ipini daitezkeen beharrezko instalazioak eraikitzea, zabalitzea, ustiatzea eta mantentzea, Ordenantza honen arabera hori guztiori Gipuzkoako Urak-i baldin badagokio betiere. Gauza bera saneamendu instalazioei dagokienez, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen gainerako araudian aurreikusten diren baldintzetan.
4. Toki entitate batek edozein urbanizazio hartu aurretik hornidura eta saneamendu sareei buruzko txostena egitea, sareak ez dituen zerbitzuak berak egin.

5. Hornidura eta saneamendu zerbitzuak erabiltzaileei ematea, Ordenantza honen eta indarrean dagoen gainerako araudiaren arabera.
6. Hornidura eta saneamendu zerbitzuetan proiektatutako obra berriei edo jarduera aldaketei buruzko txostena egitea eta haiek ikuskatzea.
7. Hornidura eta/edo saneamendu sare publikoekiko lotura berriei buruzko txostena egitea eta haiek tramitatzea, gainbegiratzea eta, behar izanez gero, egikaritzea, lan horiek ekar ditzaketen lan administratiboak eta ekonomikoak eginez.
8. Tramite administratiboak, teknikoak eta juridikoak burutzea, erabiltzaileekiko kontratu harremanak formalizatzeko eta kontrolatzeko.
9. Hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuak bere garaian fakturatzea eta kobrantza ziurtatzea.
10. Hornidura eta/edo saneamendu zerbitzuen inguruan aurkeztutako demandak, kexak eta erreklamazioak artatzea, tramitatzea eta erantzutea.

4. artikulua. Abonaturia.

Ordenantza honetako ondorioetarako, abonaturia izango da finka, lokal edo industriaren erabilera eskubidea izanik, ur edangarriaren hornidura kontratatuta daukan titularra edo bere ordezkaria.

5. artikulua. Erakunde hornitzailea.

Ordenantza honetako ondorioetarako Erakunde Hornitzailea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. izango da.

6. artikulua. Estaldura ingurua.

Ordenantza hau Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Uraren Ziklo Osoa kudeatzen duen udaletan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei aplikatuko zaie izaera orokorrean.

II. ATALBURUA GIPUZKOAKO URAK-AGUAS DE GIPUZKOA, S.A. ETA ABONATUEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

7. artikulua. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.ren betebeharrak

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako betebehar bereziak erakar ditzaketen eta Araudi honetan arauketa bereziko gai izan daitezkeen egoerataz aparte, honako betebehar hauek izango ditu:

- Izaera orokorrekoak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskura dituen baliabideekin eta bere eskuduntza eremuaren barne, edateko ura abonatuaren hargunera eramateko betebeharra dauka, betiere, Araudi honetan eta aplikagarri diren gainontzeko xedapenetan finkatzen diren baldintzen arabera.
- Ura hornitzeko betebeharra: 6. artikuluan definitzen den estaldura inguruaren barne, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzen duen oro uraz hornitzeko betebeharra dauka eta uraren hornidura zabaltzekoa eskatzen duen amaierako abonatu orori; betiere Araudi honetan eta indarrean dauden erregelamendu-arauetan jasotzen diren baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera.

- Aurreko pasartearen aipatzen diren zerbitzuak emateko betebeharra, azpiegitura eta instalazioak gauzatzeko eta garatzeko Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k erabaki ditzakeen inbertsio planetan finkatzen diren epeen baldintzapean egongo da.
- Uraren edangarritasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, indarrean dauden osasun xedapenen arabera, ura pasabide-giltzara bitarte, eraikinaren barneko instalazioa hasten den puntura bitarte, edangarria izango dela bermatzeko obligazioa dauka.
- Instalazioen artapena: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hornidurarako eta saneamendurako behar diren sare eta instalazioak bere kargura zaintzeko eta artatzeko betebeharra dauka.
- Zerbitzuaren erregularitasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k uraren horniduraren erregularitasunari eusteko betebeharra dauka. Nolanahi ere, Ordenantza honetan jasotzen diren balizkoetan ezingo zaizkio zerbitzuen etenaldiak egotzi.
- Presazko deiak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k deiak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat izan beharko du, abonatuak eguneko edozein garaitan matxuren berri eman edo larrialdietan informazioa jaso ahal izan dezaten.
- Erreklamazioak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k idatziz egiten diren erreklamazioei hirurogei egunetako epearen barne erantzuteko betebeharra dauka.
- Tarifak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuta dauzkan hornidura mota bakoitzari eta dagokion Ordenantzak, une bakoitzean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak onartuta, erabakitzen dituen tarifak aplikatzeko betebeharra dauka.
- Kontsumoa: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zerbitzuaren abonatuaren artean ura aurrezteko eta zentzuz erabiltzea sustatu beharko du.

8. artikulua. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.ren eskubideak.

Egoera berezien ondorioz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri egotz lekizkiokeen beste eskubide batzuez gain, honako eskubide hauek izango ditu izaera orokorrez:

- Barneko instalazioak ikuskatzeko: Indarrean dagoen legediak Administrazioako Organo desberdinei ematen dizkien eskuduntzen kaltetan gabe, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, Ordenantza honetan finkatzen diren mugen barne eta edozein arrazoi tarteko zerbitzuan egon edo erabiltzen diren hornidurarekin lotutako instalazioak ikuskatzeko, berrikusteko eta kontrolatzeko eskubidea dauka.
- Faktura bidezko kobrantza: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, erregelamenduari jarraiki abonatuari egiten dizkion fakturak edo egiten dizkion karguak erakunde lankideetan kobratzeko eskubidea dauka.

9. artikulua. Abonatuaren betebeharrak.

Ordenantza honetan eta abonatu batentzat betebeharrak bereziak sortaraziz, arauketa bereziko gaiak izan daitezkeen egoeretatik aparte, honako betebeharrak izango ditu izaera orokorrez:

- Ordainagirien eta fakturen ordainketa: Jasotzen duen zerbitzuaren ordainetan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k une bakoitzean onartuta dauzkan prezioen arabera egiten dizkion karguak ordaintzeko betebeharra izango du abonatu orok, bai eta zerbitzu berezietatik eratorririk, dagokion Ordenantzak finkatzen dituen prezioak ordaintzeko ere.
- Uraren kontsumoari dagokionean, ordaintzeko betebeharrak hori zabaldu egiten da kontsumoaren arrazoiak itukina, matxura edo barneko instalazioen eraikuntzan edo artapenean izan daitekeen edozein akatsen ondorio bada ere.

- Fidantzen ordainketa: Hornidura kontratua sinatzea eskatzen duen pertsona orok dagokion fidantza jartzeko betebeharra dauka, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.
- Instalazioen artapena: Uraren Hornidurako Eraikuntzako Kode Teknikoak gai honen inguruan xedatzen dena ahaztu gabe, abonatu orok bere zerbitzurako instalazioak modu zuzenean erabili behar ditu eta, hala, instalazioak modurik onenean zaintzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, ur kutxagarriak sarera itzul ez daitezen zainduko du eta, horretaz gain, kontagailua eta harguneko instalazioak ez direla maneiatu bermatzeko dauden zigiluak berean mantendu eta irakurketa errazteko baldintzarik onenak jarriko ditu.
- Instalazioen ikuskaritzarako erraztasunak ematea: Hornidura eskatzen duen pertsona orok behar diren elementu guztiak bere jabetzan jartzeko erraztasunak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri emateko obligazioa dauka, eta baita Erakunde horrek baimendutako langileei, baimena erakutsi eta gero, sarbidea emateko ere hornidurarekin lotutako egiaztapen guztiak egin ditzan.
- Era berean, kasu bakoitzean egokienak diren neurketa ekipoak eta gainontzeko elementu osagarriak jartzeko behar diren lokalak, esparruak edo kutxetak erabiltzeko eskubidea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri lagatzeko obligazioa dauka.
- Hirugarrenganako desbideraketak: Abonatuak ezingo diote, inolaz ere, hirugarren pertsona bati urik laga, doan zein kopuru baten ordainetan, ez denbora jakin baterako ez izaera iraunkorrez. Eta bai berak eta bai bere menpeko norbaitek horniduran egin dezakeen edonolako iruzurraren erantzule izango da abonatu hori.
- Matxuren berri ematea: Abonatuak, denen eta bere mesederako, banaketa sare nagusian izan edo bere iritzian izan daitekeen edozein matxura edo hondaketaren berri eman behar dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-ri.
- Erabilerak eta horniduraren irismena: Abonatuak kontratatutako urari dagokion erabilera eta dagokion moduan emateko obligazioa dauka.
- Era berean, kontratatutako horniduran gehikuntzarik edo hartzaileen kopuruan aldaketarik ekarriko lukeen instalazioetako edozein aldaketaren berri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri emateko obligazioa daukate abonatuak.
- Aipaturiko arrazoi hori tarteko, neurketarako aparailuren bat aldatu beharko balitz, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-k hori aldatzeko baimena du, beste ezein baldintza edo izapiderik bete behar gabe, eta sortzen diren gastu guztiak abonatuaren kontura izango dira.
- Bajaren berri ematea: Uraren hornidura zerbitzuan baja eman nahi duen abonatuak horren berri Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, E.A.-ri jakinarazteko obligazioa dauka, eta hornidura zerbitzuari amaiera eman nahi dion data adierazi beharko du.
- Titularra aldatzen edo kontratuaren subrogazioa egiten denean, aldaketaren data jakinarazteaz gainera, egun horretako kontagailuaren irakurketaren berri jakinarazi beharko da.
- Ur-emaria berreskuratzea: Ura energia termikoaren eroale gisa erabiltzen dituzten hozketa ekipoak edo izozketa instalazioak edota beren instalazioetan igerilekuak dituzten abonatuak, birziklapenerako ekipoak jarri beharko dituzte beren instalazioetan, betiere, Eraikuntza-Kode Teknikoan agintzen duenaren arabera
- Instalazioen bereizketa: Finka berean banaketa publikoko urarekin batera beste jatorriko ura dagoenean, abonatuak ura ibiliko edo bilduko duen sare eta instalazio desberdinak jartzeko obligazioa izango du, bata eta bestea nahasteko inolako aukerarik gabe.
- Banaketa sare publikotik kanpoko urek saneamendu kanona eta arazketa ordaindu beharko dute, azkenean udal saneamendua sarera isurtzen baldin badira.
- Ura zentzuz erabiltzea, alperrik galdu barik, eta ura aurrezteko xedez Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k sustatutako kanpainetan laguntzea.

10. artikulua. Abonatuen eskubideak.

Egoera berezien ondorioz abonatuari egotz lezikiokeen beste eskubide batzuez gain, honako eskubide hauek izango ditu abonatuak izaera orokorrean:

- Uraren edangarritasuna: indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren edangarritasun baldintzak betetzen dituen ura jasotzea bere hargunetan.
- Zerbitzu etengabea: Edateko uraren hornidura etengabea izatea, hornidura kontratuan ezartzen diren baldintzen arabera eta Ordenantza honetan eta aplikatzekoak diren gainontzeko xedapenetan finkatzen diren mugekin bakarrik.
- Fakturazioa: Jasotzen dituen zerbitzuak une bakoitzean indarrean dauden kontzeptuengatik eta zenbatekoengatik faktura dakizkion.
- Irakurketaren maiztasuna: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren bisita jasotzeko, hornidura kontrolatzen duen neurketa ekipoaren irakurketa egiteko.
- Fakturazioaren maiztasuna: Jasotzen dituen zerbitzuen fakturazioa, lau hilabeteko aldiari dagokiona izatea gehienez ere.
- Kontratua: Ordenantza honetako VIII. eta IX. ataletan finkatzen diren hornidurarako oinarriko baldintzak jasoko dituen kontratu bat, idatziz, egitea.
- Barneko instalazioak gauzatzea: Abonatuak beraiek hautatzea libreki barneko instalazioak egingo dizkion instalatzaile baimendua eta materialaren hornitzailea; materialek, betiere, erregelamenduek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko dituzte. Barne instalazioekin amaitu ondoren eta alta eskaerarekin batera, Egikaritze Ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Erreklamazioak: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren edo bere langileen jardueraren aurkako erreklamazioak jartzeko, Ordenantza honetan jasotzen diren prozedurei jarraiki. Erreklamazioa uraren hornidura baldintzak betetzearekin lotuta dagoenean, erreklamatzailerak hornidura kontratuaren titularra edo haren legezko ordezkari dela egiaztatu beharko du.
- Informazioa: Hornidurari buruzko zerbitzuarekin eta funtzionamenduari lotutako gai guztiak galdetzeko, bai eta erantzuna idatziz jasotzeko ere galdera horrela egindakoan. Era berean, eskubidea izango du, eskatzaileak horrela eskatuz gero, indarrean egon eta aplikagarri zaizkion arauen berri jasotzeko, eta baita ere Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k Ordenantza honen ale bat utz dakion abonatuaren arretarako bulegoan irakur dezan.
- Zigiluak kentzea: Premia larria gertatuz gero, instalatzaileak kontagailuaren zigilua kentzeko. Kasu horretan, horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri 24 orduren barruan.

III. ATALBURUA. INSTALAZIOAK

11. artikulua. Banaketa sarea.

Banaketa sarea hodi guztiek eta horiek maniobratzeko eta kontrolatzeko elementu guztiek osatzen dute, instalatu ondoren edateko ura presioan daramatenak; bertatik ateratzen dira abonatuentzako ur harguneak.

12. artikulua. Arteria.

Hornitutako eremuko hainbat sektore lotzen dituen banaketa-sareko hodia eta haren elementuak dira arteria, eta bertatik ezin da ur hargunerik egin.

13. artikulua. Bide hoditeria.

Bide batetan zehar doazen banaketa sareko hodiekin osatzen dute bide hoditeria; eta hodi horietatik atera ahal izango dira, behar denean, hornidurako harguneak, ureztatze-ahoak eta suteetako ur-harguneak.

14. artikulua. Harguneak.

Bide hoditeria, edo, orokorrean, banaketa sarea, hornitu nahi den finka, lokal, lurzati edo dena delakoaren barneko instalazioarekin lotzen dituen hodiak eta gainontzeko elementuak dira. Ura hartzeko gailuaren segidan hargune balbula bat ipiniko da.

Hargunea honako elementu hauek osatuko dute:

- a) Ura hartzeko gailua: banaketa sareko hodiaren gainean dago eta hargunea irekitzen du. Gipuzkoako Urak-ek egoki baderitzo giltza jarri ahal izango du.
- b) Hodi-adarra: Ura hartzeko gailua ixteko balbularekin lotzen duen hodi zatia da.
- c) Ixteko balbula: Hargunearen gainean egongo da, bide publikoan eta eraikuntzaren ondoan. Ur Zerbitzuak edo baimendutako pertsonak bakarrik erabili ahal izango dute; inolaz ere ez, ordea, abonatuak, jabeek edota hirugarren pertsonak. Behar bezala homologatutako erregistro-kutxetan egongo da, erabili eta konpondu ahal izateko moduan.
- d) Ixteko giltza Nagusia: Harguneak barneko elikadura-hodiarekin bat egiten duen puntuan egongo da. Hargunearen kokalekua, atearen ondoan edo eraikinaren barruan, Gipuzkoako Urak-ek zehaztuko du.

15. artikulua.- Ur hornidurako barneko instalazioak.

Ur hornidurako barneko instalaziotzat honakoak hartuko dira: hoditeria eta horren kontrol, maniobra eta segurtasun elementuak; baina, betiere, uraren zirkulazioari jarraiki, fatxada lerroaren edo jabetza pribatuaren hasieraren ondoren daudenak.

16. artikulua. Saneamenduko harguneak.

Eraikuntzaren barneko instalazioak bide-hoditeriarekin lotzen dituzten hodiak eta gainontzeko elementuak dira.

Hargunea honako elementu hauek osatuko dute:

- a) Abio-kutxeta: jabetzaren mugaren ondoan egongo da beti, finkaren kanpoko aldean. Kutxeta honek C motako erabiltzaileentzat kontrol kutxeta izaera izango du (ikus eranskina) eta bere ezaugarriak Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Kolektoreetako Isurketak Araupetzen dituen Erregelamenduak ezarritakoak izango dira.
- b) Garraio-hodiak: Abio-kutxetetatik saneamendu sarearekin lotzeko putzuetara arteko hodiak dira.
- c) Lotuneak: Harguneko hodiak eta estolderia sarea elkartzen diren gunek dira.

IV. Atalburua. BARNEKO INSTALAZIOAK

17. artikulua.- baldintza orokorrak.

Ur hornidurako barne instalazioak baimendutako instalatzaile batek egingo ditu; betiere, Eraikuntza Kode Teknikoak agintzen duenari jarraiki.

Instalazio horien artapena eta zaintza, une bakoitzean ur horniduraren titular diren pertsonen kontura eta kargura izango dira.

Banaketa sarean ahari-kolperik ez izateko, behar diren elementuak jarri beharko dira barne sare partikularretan.

18. artikulua. Martxan jartzeko baimena.

Ur hornidurako barne instalazioak martxan jartzeko baimena lortzeko behar den dokumentazioa eta egin behar diren tramiteak Eraikuntzako Kode Teknikoan kasu bakoitzerako ezartzen diren eskakizunen arabera izango dira.

19. artikulua. Barne instalazioen aldaketa.

Hornidura eta saneamendu zerbitzura abonatuak barne instalazioen egituran edo ezaugarrietan egindako edozein aldaketaren berri eman behar diote, derrigorrez, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri.

20. artikulua.- Ikuskaritza ahalmena.

Ikuskaritza egiteko eskumena Administrazioako erakundeek edukitzeaz gain, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k abonatuak instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, hornidura nola eta zein baldintzetan erabiltzen den zaintzeko.

V. ATALBURUA. HARGUNEAK

21. artikulua.

Edateko uraren hornidurarako baimena ematea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri dagokio, eta Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak eta egoerak betetzen diren guztietan bertan jasotzen diren arauen arabera emateko obligazioa dauka.

22. artikulua. Baimenaren baldintzak.

Uraren hornidurarako hargune bat jartzeko baimena, hornidura osorako baldintzak betetzearen menpe egongo da; ondoren zehazten diren baldintzapean, alegia:

1. Hornitu behar den eraikina horniduraren estaldura eremuaren barne egotea.
2. Hornitu nahi den eraikinak Ordenantza honetan jasotzen diren arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten barne instalazioak izatea.
3. Hornitu nahi den eraikinak isurketen eta euri uren hargune bat edota bestelako ebakuazio sistema bat izatea; azken kasu horretan, horretarako behar diren baimen guztiak izan beharko ditu.
4. Eraikinaren muga egiten duten, edota bere fatxada aurreko, izaera publikoko kale edo plazetan edateko uraren banaketa sare publikoko instalazioak izatea eta martxan egotea. Bide publiko batean ura eramateko hoditeria bi espaloietan proiektaturik badago eta hoditeria aurreko paragrafoan aipatutako eraikinaren pareko espaloian egon, ez da betetzen inolaz ere paragrafo horretan jasotako baldintza.
5. Eraikina hornitu behar duen hoditeria zerbitzua emateko egoera ezin hobean egotea eta bere garraio ahalmena nahikoa izatea. Hori horrela ez dela ulertuko da harguneari baja eman zitzaionetik urtebete baino gehiago pasa bada
Urtebete baino gehiagoz bajaran egondako harguneeen kasuan, beraien egoera egiaztatu beharko da berriz alta eman ahal izateko.

23. artikulua. Jarduerak estaldura eremuan.

Ordenantza honetako 6. artikuluan definitutako estaldura eremuan hornidura osorako baldintzak ematen direnean eta hargunerako dagokion baimena izapidetuta izan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hargunea non ipini behar den zehaztuko du.

6. artikuluan definitutako estaldura eremuaren barne egon arren, hornidurarik ez duten tokietan hornidura berrietarako baimena, edo, hornidura izanik, inguru horretan dauden instalazioak handitzeko edo aldatzeko kasuan kasuko baimenak, hornidurarako baldintza teknikoen menpe edo Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k onartutako inbertsio planen menpe egongo dira. Nolanahi ere, kontsumitu nahi den puntutik hurbil ez badago banaketa sarrerik, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzaileari exijitu diezaioke banaketa sarea luzatzeko hargunea jartzeko baimentzen den punturaino. Luzapena eskatzailearen kontura izango da, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ezarritako ezaugarri teknikoen arabera egin beharko da. Banaketa sarea luzatzeko obrak amaitutakoan, tarte berria Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren jabetzan geratuko da, eta eskatzaileak ez du inongo kopururik jasoko konpentsazio gisa. Eraikitako luzapena inguru horretako horniketa berrietara ura eramateko erabil dezake Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, betiere tarte horren garraio-ahalmena gainditzen ez badu, luzapenarentzat ezarritako neurrien arabera.

Harguneak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k edo berak baimendutako pertsonak egingo ditu Ordenantza honek ezarritako ezaugarrien arabera. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k lanak nola gauzatu diren ikuskatu ahal izango du, eta zuzen ez badira egin, akatsak zuzendu arte horniketarik ez emateko ahalmena du.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. ez da inoiz behartuta egongo emariaren hornikuntza presio jakin batekin ematera.

Emari jakin baterako behar adina presiorik ez badago, eskatzaileak gainpresio-sistema berezi bat instalatu eta mantendu beharko du bere kargura. Sistema horrek Eraikuntza Kode Teknikoaren HS4 atalean (ur hornidura) ezarritakoa bete beharko du.

Hornitu gabeko edo behar beste hornitu gabeko puntu baten eskatzaile orok ordaindu beharko ditu, itzuli beharrik gabe eta bere kontura, kontsumo-eskari berriari erantzuteko sarea handitzeak edo aldatzeak eragiten dituen gastu guztiak.

Sarearen zabalpen edo aldaketa oro egiteko Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatutako baldintza teknikoak jarraitu beharko dira.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du inolako betebeharririk izango hirigintza jardueraren baten ondorioz sare eta instalazioen bide trazaduretan edo kokapenetan aldaketak, luzapenak edo sendotze lanak egiten badira aurretik zeudenek traba, oztopo edo zortasuna eragiten zutelako.

Estaladura eremuaren barne sortzen diren poligono eta urbanizazio berrien barne egiten diren jarduerak salbuetsirik egongo dira artikuluko honetako aurreko puntuetan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzetatik, eta ondorengo artikuluan ezartzen diren baldintzen arabera arautuko dira.

24. artikulua. Urbanizazioak eta poligonoak.

Ordenantza honetan honako hau hartuko da urbanizaziotzat eta poligonotzat: lursaila banatzen den lurzati edo orube desberdinen artean edo aipatutako horien eta hiriguneko eremu eraikiaren artean bide eta zerbitzu azpiegituraren bat egitea, aldatzea edo handitzea eskatzen duten lursailen multzoak.

Urbanizazio eta poligono pribatuen barne sare orok emari-neurgailu orokorra jarrita izan beharko du poligonoaren sarreran, Gipuzkoako Urak, S.A.-ren (Sistema Orokorra) jabetzako kanpoko hodiekin lotzen den lekuan. Kontagailu orokor horri jabeakideek erabakitzen duten pertsona fisiko edo juridikoaren izenean emango zaio alta eta bere kargura instalatuko da. Aipatutako kontagailu orokor horren helburua da urbanizazio eta poligonoetako instalazio pribatuen mantenimendu eskasagatik edo lursail pribatuetan deklaratu gabeko iruzurrezko kontsumoengatik kontsumitutako ur m³-ak neurtzea eta fakturatzea. Fakturatu beharreko m³-ak honela kalkulatu dira: kontagailu orokorrean neurtutako m³-ei urbanizazio edota poligonoko sare partikularrean altan emandako banakako kontagailuetakoak kenduta.

Lehen definitutako poligono edo urbanizaziorako edo bertan kokatutako orube edo higiezinetarako hargunea edo hornidura emateko, baldintza hauek bete beharko dira aldez aurretik:

- a) Urbanizazio edo poligono horiek urez behar bezala hornitzeko beharrezkoak diren barruko banaketa sareak eta gainerako instalazio guztiak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k onartutako eskemen arabera egingo dira, eta sare eta instalazio horien ezaugarriak eta neurriak eskumena duen teknikari batek egindako proiektu batean jasoko dira, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k onar ditzan; horrez gain, proiektu hori aplikatzekoak diren erregelamendu eta ordenantzetara eta Gipuzkoako Urak-Aguas de

Gipuzkoa, S.A.-k ezarritako arau teknikoetara egokituko da, eta urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura egingo da.

- b) Onartutako proiektuan definitutako obrak eta instalazioak, bai eta proiektua gauzatzen den bitartean Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren baimenarekin izan daitezkeen aldaketak ere, urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura egingo dira oso-osorik, teknikari gaitu baten zuzendaritzapean, edo, hala badagokio, Industriako Lurralde Ordezkaritzak homologatutako enpresa instalatzaile batek eginda.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k obrak gauzatzen diren bitartean, edo obra hartzeko edo zerbitzua martxan jartzeko unean, obrak egoki gauzatu eta proiektuan aurreikusitako materialaren kalitate-ezaugarriak errespetatu direla bermatzeko beharrezko irizten dituen proba eta entsegu guztiak eskatu ahal izango ditu, eta proba horietatik eratorritako gastuak urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kargura izango dira.

Urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzaileak edo egileak ezingo du inoiz ur-hornidura hargunerik egin bertako eraikinetan, orubeetan edo lurzatietan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren alde aurreko idatzizko baimenik gabe eta dagokion emakidarik jaso aurretik.

- c) Poligonoen barneko sareen eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren menpeko kanpoko sareen arteko lotura edo loturak, eta baita urbanizazioak berak eskatutako behar berrien ondorioz egin beharreko aldaketak ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuko ditu eta artikuluko a) idatz-zatian aipatzen den proiektuan jasoko dira argi eta garbi; eta gauzatu, berriz, urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura gauzatuko dira.

Behin sareak eta sistema orokor publikoetarako loturak eginda, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren jabetzakoak izatera igaroko dira; alabaina, obrak ez badira Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatutako irizpide teknikoaren arabera gauzatu, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak uko egin diezaiolke obrak hartzeari eta baimenik ez eman sistema orokorrarekin loturak egiteko.

Landa lurrian edo lurzoru ez-urbanizagarrian hornidura ematea indarrean dagoen hirigintza legediak baimentzen dituen kasuetara mugatzen da.

25. artikulua. Ezaugarriak finkatzea.

Harguneeen ezaugarriak -neurriei, osagaiei eta materialen motari eta kalitateari dagokionean zein lotunea nola egin eta lotura guneari dagokionean- Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkatuko ditu, hornitu beharreko eraikinaren erabilerari buruz Eraikuntzako Kode Teknikoan ezarritakoaren, aurreikusitako kontsumoaren, presio baldintzen eta Gipuzkoako Urak, S.A.-ren Araudi Teknikoan jasotzen diren berezitasunen arabera.

Puntu jakin baterako eskatutako ur emaria bertako harguneearen edota banaketa sarearen hornidura-gaitasuna baino handiagoa denean, horien ezaugarriak aldatzeak dakartzan gastuak eskatzaileak ordainduko ditu.

26. artikulua. Eskaerak izapidetzea.

Interesdunak eskatu beharko dio hargune bat Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri erakunde horrek emango dion eskaera-orri normalizatuan.

Eskaera horrekin batera, gutxienez, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Kokapenaren, iturgintzaren, saneamenduaren eta, horrelakorik balego, suteen aurkako hartuneen, planoak.
- b) Egikaritze-ziurtagiria eta beharrezko gainerako dokumentazioa instalazioen tipifikazioaren arabera.
- c) Jabetza eskritura edo hornidura eskatzen den ondasun higiezinaren erabilgarritasuna egiaztatzen duen agiria.
- d) Udalak emandako obra lizentziaren zenbakia eta emandako data.
- e) Dagokion baimena, hargunearen ibilbidea jabetza pribatutik igarotzen den kasuetan.
- f) Isurketa baimentzeko eskaera aurkeztu beharko dute hala eskatzen duten jarduerak.

Eskatzaileak aurkezten dituen datuen arabera, eraikinaren ezaugarrien arabera eta banaketa sareen egoeraren arabera, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, eskaera aurkeztu eta gehienez ere hogeita hamar laneguneko epean, interesdunari jakinaraziko dio eskatutako hargunearentzako edo harguneentzako baimena ematen dion edo ukatzen dion, eta azken kasu horretan, baimenik ez emateko arrazoiak azalduko dizkio.

Eskatzaileak, berriz, beste hogeita hamar eguneko epea izango du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egindako errekerimenduei erantzuteko edo, hala balitz, egoki irizten dituen alegazioak aurkezteko Epe hori igaroko balitz araututakoa bete gabe, eskaerak bere indarra galduko du eta ez du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako bestelako obligaziorik sortuko.

Eskaera onartu ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, hamabost egun balioduneko gehieneko epean, hargunearak edo harguneeak izan behar dituzten ezaugarriak eta baimenaren eta obrak gauzatzeko baldintzak jakinaraziko ditu

27. artikulua. Emakidaren xedea.

Edateko uraren banaketa sarean hargunea izateko baimena emango zaio eraikuntza unitate independentea osatu eta bide publikorako irispide zuzena duen higiezin bakoitzari.

Araututakoa betetzearen ondorioetarako, eraikuntza unitate independentea izango da sarrerako eskape bakarria duten etxebizitzek edota lokalek osatzen duten eraikina, bai eta, industria edo merkataritza jarduera bakar bat burutuz, pertsona fisiko edo juridiko bakar baten jabetzakoak diren merkataritza eta industria eraikinak.

Eraikuntza unitate independentearen beheko oinetan kokaturik dauden lokalek, sarrera-atari bera ez izan arren, higiezinaren kontagailu sail orokorretik hornitu beharko dira.

28. artikulua. Emakida formalizatzea.

Emakidaren baldintzak bi aldeek onartuta, akordioak ez du eraginik izango harik eta eskatzaileak Ordenantza honen arabera dituen betebeharrak ekonomikoak bete arte.

29. artikulua. Obrak eta artapena.

Hargunearak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k edo berak baimendutako pertsonak egingo ditu Ordenantza honek ezarritako ezaugarrien arabera.

Hargunea jartzeko zangak ireki eta ixteko obrak, bide publikoan zein jabetza pribatuan, erretenak egitekoak eta hormak eta zoladurak zultzeko lanak abonatuak ordaindu beharko ditu bere

kontura eta bere erantzukizunpean. Obrak gauzatzeko eta hargunea egokiro egiteko Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.-k emandako argibideak jarraitu beharko dira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, aipaturiko obrak egin ahal izango ditu, betiere eskatzailearen kargura eta berak eskatuz gero.

Nolanahi ere, hargunea jartzearen kostua eskatzailearen kontura izango da.

Instalazioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k baimendutako langileek bakarrik manipulatu ahal izango dute; eta horrenbestez, ur hornidura jasotzen duen higiezinaren jabeak ezingo du inolako aldaketarik egin inguru horretan Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren berariazko baimenik gabe.

Oro har, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k bide publikoaren amaieraraino edo finka pribatuaren mugaraino mantenduko ditu harguneak.

30. artikulua. Hargune eskubidea.

Hargune bat eskatu duen pertsonak Gipuzkoako Urak-Agua de Gipuzkoa, S.A.-ri inbertitu beharrekoaren balio proportzionala konpentsatzeko ordaindu behar dion konpentsazio ekonomikoa da; hain zuzen ere, hornidura berri hori egin aurretik hornitzen zen baldintza berberetan hornitzen jarraitu ahal izateko, inolako galerarik eragin gabe lehendik zeudenei, egin beharreko handitze lanak, aldaketak eta hobekuntzak egiteko inbertitutakoaren balio proportzionala konpentsatzeko.

Hargunearen emakidak berez darama, Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, dagokion prezioa ordaintzea eskatzaileak.

Hargunearen eskubideak osorik eta behin ordainduko dira; eta hala ordaindu ondoren dagozkien instalazio, etxebizitza, lokal eta abarrei atxikita geratuko dira, bere jabea edo erabiltzailea edozein delarik ere.

Abonatu batek aurrez dagoen hargune baten sekzioa handitzea eskatuko balu, eskatutako hartunarengatik ordaindu beharko lukeenaren eta lehendik zegoenarengatik ordaindu beharko lukeenaren arteko diferentzia ordaindu beharra ekarriko du.

VI. ATALBURUA SANEAMENDUA

31. artikulua.- Baldintza orokorrak.

Saneamendu zerbitzuari, oro har, Ordenantza honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio, beraien izaera espezifikoagatik hornidura zerbitzuari bakarrik aplikagarri zaizkionak izan ezik; betiere, ondorengo artikuluetan xedatutako berezitasunen kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako «hornidura», «hornidura edo horniketa», «kontsumoak» eta «hornitu» terminoak «hustuketa», «saneamendua», «isurketak» eta «ebakuazio sistema dutenak» terminoei egiten die erreferentzia.

Isurketaren kota kolektorearena baino txikiagoa bada, isurkiak jasotzeko ekipoaren instalazioa eta zaintzaren gastuak eskatzailearen kontura izango dira, eta arau orokor gisa, eraikinaren edo finkaren barruan jarriko da ekipo hori.

32. artikulua. Harguneak.

Saneamenduko hargunea Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egokien irizitako puntuan lotuko zaio saneamendu sareari.

Saneamenduko harguneak bai beren diseinuagatik bai eraikitako moduagatik iragazgaiztasuna bermatuko dute, batez ere, saneamenduko sarearekin lotzen diren puntuetan. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hargunean zein sarearekin lotzen den unean kutxetak jartzea exiji dezake, eta baita bestelako kutxetak egitea emaria kontrolatzeko eta neurtzeko eta dagozkien neurketa-sistemak jartzea ere. Eta hori guztiori, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ematen dituen zehaztapenak betez gauzatu beharko da. Nolanahi ere, saneamendu-harguneak egiturari eusteko proiektatu eta gauzatu beharko dira, bai eta garraiatu beharreko uren erasokortasun-ezaugarriari aurre egiteko ere.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k isurketen eta euri-uren hargune independenteak instalatzea exijituko du, bai eta, ondorioz, ebakuazio zerbitzua jarriko den eraikinean edo finkan sare berezituak egitea ere.

C motako erabiltzaileek (ikus eranskina), hargunearen aurretik, kontrol kutxeta bat eduki beharko dute, berezkoa, sartzen erreza eta saneamenduko sarera dagokion Isurketa Baimenean baimendutako isurketa denak biltzen dituen. C motako erabiltzaileek (ikus eranskina), hartunearen aurretik, kontrol-kutxatila bat izan beharko dute, berezkoa, irisgarria eta dagokion isurketa-baimenean saneamendu-sarera bideratzeko baimendutako isurketa guztiak bilduko dituen.

Erabiltzaileek, horrela eskatzen zaienean, neurketa eta kontrol ekipoak jarri beharko dituzte beraien instalazioetan. Horien ezaugarriak eta kokapena Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin adostu beharko dira.

33. artikulua. Jarduerak estaldura eremuan.

Saneamenduko azpiegitarik gabeko edo saneamendu azpiegitura nahikorik ez dagoen zonaldeetan erabiltzaileek irtenbide bereziak bila ditzakete, hala nola, hobi septikoak edo beharrezkoak irizten diren bestelako arazketa sistemak jartzea; baina, betiere, teknikari gaitu batek egin beharko du proiektua eta obra kontrolatu.

Nolanahi ere, konponbide horiek eta ematen diren baimenak behin behineko izaera izango dute, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k finkaren inguruan saneamenduko sarerik ez duen bitarterako. Beraz, saneamenduko sarea finkaren ondotik igarotzen denean, Ordenantza honetan aurreikusitako moduan eta baldintza orokorretan lotuko da sarearekin.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, saneamenduko azpiegitarik gabeko zonaldeak iritziko dira hargunea kokatu behar den inguruan kolektore sarerik ez dituzten zonaldeak.

Era berean, toki batek nahikoa saneamendu azpiegitarik ez duela iritziko da hargunea kokatu behar den toki horretan isurketa eskaera berri bati erantzuteko adinako garraio gaitasunik edo kotarik ez duen tokia.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du izaera bereziko etxe instalazioetako isuriak bere gain hartzeko, garbitzeko eta saneatzeko obligaziorik, baldin eta Gipuzkoako Urak-en eta hondakin-uren arazketa sistema partikularren jabearen arteko akordioak ez badago, eta kasu horretan, bi aldeen artean hitzartutakoari lotuko zaio eman beharreko zerbitzua, edota, zerbitzu hori saneamenduari berez dagozkion zerbitzuen ordainetan ematen ez bada.

VII. ATALBURUA KONTSUMOAREN KONTROLA

34. artikulua. Neurgailuak.

Eraikuntzako Kode Teknikoan kasu bakoitzerako ezarritakoaren kalterik gabe, horniketa ororen fakturaziorako oinarri gisa erabiliko diren kontsumoak kontagailuen bidez neurtuko dira, kontsumoaren beraren berri emango duen bide bakarra izango dena, bestalde.

Arau orokor gisa, bide publikora ematen duten eraikinetan honela neurtuko da kontsumoa:

- Kontagailu bakarra: Eraikinean edo finkan etxebizitza edo lokal bakarra baldin badago, behin-behineko horniduretan eta obrak egiten ari diren poligonoetan, baldin eta barruko banaketa sareak Gipuzkoako Urak-ek hartzen ez baditu.
- Banakako kontagailuen bateria: Etxebizitza edo lokal bat baino gehiago dagoen eraikinean derrigorrezkoa izango da neurgailu bat jartzea horietako bakoitzarentzat eta behar beste neurgailu zerbitzu komunitateentzat.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k barneko instalazioa hasten den puntuan kontagailu orokor bat jarri ahal izango du, eginkizun bakarra instalazio horren barne kontsumo osoa kontrolatzea izango duena. Kontagailu horrek ematen dituen datuak barneko instalazioan izan daitekeen edozein arazo igartzeko erabiliko da. Horrela, edozein matxura izanez gero berehala jakinaraziko litzaieke abonatuari eta horiek akatsak zuzentzeko obligazioa izango dute 30 eguneko epean.

Epe hori igarota arazoak konpondu gabe, aipatutako kontagailu orokor horiei alta eman beharko zaie jabeentzako izenean. Jabeentzako komunitateari dagokio banakako kontagailuen batuketaren eta kontagailu orokorrean jasotako kontsumoaren arteko diferentzia ordaintzea, diferentzia hori finka barruan izandako kontsumoari baitagokio.

Jabe bat baino gehiago dagoen sektore edo partzela pribatu baterako hargune bakarra dagoen industrialdeetan kontagailu orokor bat jarriko da partikularren partzela independentetaren mugan.

Kontagailua jartzea partzela edo sektorearen jabeen kontura izango da. Kontagailu orokor horren eta kontagailu partzialen baturaren artean alderik egonez gero, alde hori kontagailu partzialen artean banatuko da.

Kontagailuaren edo kontagailuen ezaugarriak finkatzea, instalatzeko erabilitako sistema edozein delarik ere, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eskuduntza izango da. Hala, neurriak eta ezaugarriak finkatzerakoan, kontuan izango dira abonatuak bere horniketa eskaeran adierazten duen kontsumoa eta Eraikuntzako Kode Teknikoan xedatutakoa.

35. artikulua. Neurgailuen ezaugarri teknikoak.

Neurgailuen ezaugarri teknikoak, Europako Elkartean emandako arauetara egokitzen direnak, honako hauek izango dira:

a) Kontagailu motak:

Ez da instalatuko kasuan kasu dagokion egiaztapen ofizialeko bermerik ez duen edota Industriako Lurralde Ordezkaritzaren batek emandako jatorrizko bermerik ez duen kontagailurik. Arau orokor bezala, kontagailu berriak bolumetrikokoak izango dira. Suteen kontrako sareetan bakarrik, eta behar bezala justifikatutakoan, abiadurazko C motako kontagailuak jarriko dira. Kontagailuak Eraikuntzako Kode Teknikoaren arabera muntatuko dira.

b) Instalatzen diren aparatuek honako ezaugarriak izango dituzte:

- Kontagailuen fabrikazioari dagokionean, ISO 9001 edota ISO 9002 arauaren ziurtapena egiaztatu duen enpresa batek eginak izan beharko dira.
- CEE homologazioa izatea, C motakoa edo goragokoa .
- Behar den bezala pintatuta eta egiaztatuta egotea.

36. artikulua. Kontagailu bakarra.

Armairu baten barruan instalatuko da, babesteko eta maniobrarako giltzekin. Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutakoa izango da eta horretarako erabiliko da bakar-bakarrik. Hornituko den eraikinaren beheko solairuan egongo da, sarrerako atearen ondoan eta fatxadako horman sartuta edo etxearen jabetzako itxitura batean. Edonola ere, derrigorrezkoa da bide publikotik zuzeneko sarbidea edukitzea.

Inoiz, eta behar bezala justifikatuta badago, kontagailu bakarra eta maniobrarako giltzak lurpeko gela batean instalatu ahalko dira, baina kaletik sarrera zuzena izan behar du eta fatxadaren edo jabetzako itxituraren ahalik eta gertuen egongo da.

Kontagailuaren armairua edo gela estankoa izango da, eta hustubidea izango du zuzenean estolderiara, instalatuko den harguneak eman dezakeen gehieneko ur emaria husteko ahalmena izango duena. Horrez gain, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutako atea eta sarraila izango ditu.

37. artikulua. Banakako kontagailuen bateria.

Banakako kontagailuen bateriak helburu hori bakarrik izango duten lokaletan edo armairuetan instalatuko dira, eraikinaren beheko solairuetan, denen erabilerarako tokian eta ataritik sarbide zuzena duen tokian.

Kontagailuak batera dituzten bateriak ofizialki onartutako eta homologatutako mota eta modelotakoak izango dira.

Gorako hodi bakoitzaren hasieran eta banakako kontagailuen bateriarekin bat egiten duen gunean, balbula bat jarriko da ura banaketa sarera itzultzea eragozteko.

38. artikulua. Kontagailuaren jabetza.

Abonatuak kontagailuak eta bestelako aparatuak jartzeko eskubidea dute, betiere aparatu horiek Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A-k homologatutako sistema eta mota batekoak badira eta aldeko emaitzarekin ofizialki egiaztatuta baldin badaude.

Kontagailuek, homologatutakoak izateko, 35. artikuluan zehazten diren ezaugarriak bete behar dituzte.

Abonatuak izango da neurgailuen eta kontrolerako gailuen zaintzaren eta mantentze egokiaren erantzule, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A., berriz, haien mantentze-lanena, manipulatzearena eta, bidezkoa balitz, berritzearena.

Behin erabiltzailearen kontura jarri ondoren, neurtzeko tresneria Gipuzkoako Urarena izatera pasako da.

Suteen aurkako zerbitzuaren hornidura kasuetan, horien zaintzaren, mantentze-lanen eta, bidezko denean, berritzearen erantzukizuna kontratuaren titularrak izango du.

39. artikulua. Egiaztapena egiteko derrigorrezkotasuna.

Ordenantza hau indarrean jartzen den egunetik beretik, derrigorrezkoa da inolako salbuespenik gabe ur kontsumoaren fakturazioa erregulatzeko oinarri gisa erabiliko diren kontagailuen eta neurgailuen egiaztapena egitea eta haiei zigilua jartzea.

Industriaren alorrean eskumena duen erakundeak egiaztatu eta zigilatuko ditu gailuak laborategi ofizial edo baimendu baten bidez, honako kasu hauetan:

1. Gailuen funtzionamendu ohikoan kalteak eragin ditzaketen konponketak egin ondoren, edo zigilua kendu behar zaienean.
2. Hala egitea eskatzen duenean abonatuak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.-k edo Herri Administrazioiko organo eskudun batek.

Gailuek ez badituzte arauz ezarritako baldintzak betetzen, konpondu eta berriro egiaztatu beharko dira.

Egiaztapenak laborategi ofizialetan edo baimenduetan egingo dira; nolana ere, kontagailua dagoen tokian ere egingo ahal izango da, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz egiaztapena laborategian egiten den eran eta aparailu eramangarriekin egin daitekenean.

40. artikulua. Zigilu ofiziala.

Laborategi ofizialak edo baimenduak zigilua jarriko die egiaztatu dituen kontagailu eta neurgailu guztiei.

Egiaztatu ondoren jarritako zigilu ofizialak honako hauek ziurtatzen ditu:

1. Kontagailua edo neurgailua onartutako sistema batekoa dela.
2. Erregulartasunez dabilela.

Lehendabizikoz instalatzen diren kontagailu berrietan, jatorrizko egiaztatze marka dutela egiaztatuko dute laborategian eta, beraz, egun hori hartuko da egiaztatze datatzat. Egun horretatik aurrera, kontagailuaren urteak zenbatuko dira, Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Abonatuaren betebeharra izango da kontagailua eta neurgailua zaintzea, bai eta egoera onean edukitzea ere; betebeharrak izango du kontagailuaren zigiluari eta etiketei dagokienez ere.

Betebehar horiek ez betetzeak eragingo duen erantzukizuna hornidurara abonaturako pertsonak izango du.

41. artikulua. Kontagailuen aldirian aldiriko berritzapena.

Berritzapenaren helburua da kontsumoen edukiera, onartutako tolerantzien barne, bermatzea eta parkea osatzen duten kontagailuak funtzionamendu egoera onean edukitzea.

Helburu hori betetzeko, ur hotzeko kontagailuek modeloaren onarpenerako eta jatorrizko egiaztapenerako kontrol metrologikoa pasa beharko dute. Kontrol hori egin beharko da kontuan hartuz CEE Kontrol Metrologikoa arautzen duen ekainaren 10eko 597/1998 Errege Dekretuan, edo Dekretu hori garatzen duten erregelamenduetan adierazitakoa.

Ezaugarri metrologiko eta teknologikoei, inskripzioei, markei eta jatorrizko egiaztapenari dagokionean aipaturako araudian ezarritakoari lotuko zaio.

Kontagailuen bizitza erabilgarria 10 urtekoa izango da instalatzen direnetik, eta 7 urtekoa, berriz, 25 mm baino haundiagoko kontagailuentzat. Epe horiek igarota, aldatu egin beharko dira.

42. artikulua. Laborategi ofizialak.

Ur horniduran erabiltzen diren kontagailuak eta gainerako neurgailu guztiak frogatzeko, egiaztatzeke eta kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzak jartzen dituen laborategiak hartuko dira laborategi ofizialtzat.

43. artikulua. Laborategi baimenduak.

Laborategi ofizial horiez gain, beste laborategi batzuk jarri ahalko dira xede eta ondorio berberetarako, baina kasuan kasuko administrazioak horretarako emandako baimena eduki beharko dute, eta administrazio horrek ezarriko ditu baimenak emateko eta laborategi horiek bete beharreko arauak.

44. artikulua. Kontagailuak desmuntatzea.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa S.A.-k edo hark baimendutako pertsona batek egingo du beti kontagailuen eta neurgailuen konexioa eta deskonexioa, eta hark jarri ahalko dio zigilua instalazioari. Era berean, hark bakarrik izango du baimena, ustiapen arrazoiak tarteko, zigilua kentzeko.

Honako arrazoi hauen ondorioz desmuntatu ahalko dira kontagailuak eta neurgailuak:

- Industria Ordezkaritzak ebazpen bidez hala egitea erabakitzen bada.
- Hornidura kontratua iraungitzen bada.
- Neurgailuan matxuraren bat gertatzen bada.
- Beste bat jarri behar bada aurrekoa kenduta, Ordenantza honetan horretarako propio xedatutakoa betez.
- Kontsumoen erregimena aldatzen bada eta, horren ondorioz, instalatutako aparatuaren ahalmen teorikoa gainditzen bada, goitik edo behetik.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz kontagailua edo neurgailua behar bezala ez dabilelako seinale nabarmenak badaude, ondo ez dabilen gailua desmuntatu ahal izango du eta haren ordeztatik ofizialki egiaztatutako beste bat jarri. Aurrekoaren ordeztatik instalatutako gailuan erregistratutako kontsumoen bidez likidatuko dira kontsumoak.

Kontagailuak aldatzeko prozedurak, arrazoiaren arabera:

1. Matxuraren baten ondorioz:

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k kontagailu bat matxuratuta dagoela somatzen duenean, aldatu egingo du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jabetzakoa bada eta, edo bestela, abonatuari jakinaraziko zaio berak, bere kontura, gehienez ere 30 eguneko epean, konpon edo alda dezan.

Epe hori betetakoan kontagailua aldatu gabe badago, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k aldatuko du, eta aldaketa gastuak jabearen kargura izango dira.

2. Aldian aldiko azterketaren ondorioz aldatu behar direnean, aldaketa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egingo du eta gastuak bere gain hartuko ditu.

Abonatuaren instalazioaren egoerak kontagailu aldaketa sinplea baino eskuhartze handiagoa behar balu, instalazioa zaharkituta egoteagatik, akatsak izateagatik edo ezohiko egoeran egoteagatik, Gipuzkoako Urak, S.A.-k instalazio konpontzeko eskatuko dio abonatuari, eta horrek 30 egun izango ditu konpontzeko. Aipatutako konponketa esandako epean egiten ez bada, kontsumoa ordenantza honen 77. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu izango da.

45. artikulua. Lekuz aldatzea.

Kontagailuak edo neurgailuak jartzeko erabiliko den instalazioa instalatzaile baimendu batek jarri behar du, arauz ezarritako baldintzak betetzen dituen leku batean, eta higiezinaren titularraren kargura eta kontura jarriko da.

Kontagailua edo neurgailua dagoen tokian egiten den aldaketa oro, hornitzen den esparruaren edo jabetzaren barruan, aldaketa egitea eskatu duenaren kargurakoa izango da beti. Nolanahi ere, abonatuaren kargurakoa izango da beti, baldin eta kontagailua dagoen tokian aldaketak arrazoi hauengatik egiten badira:

a) Kontadorea instalatu eta gero abonatuak egindako erreforma obren ondorioz kontadorearen irakurketa, berrikuspena eta hura ordeztzea zailtzen bada.

b) Kontagailuaren instalazioak betetzen ez baditu Ordenantza honetan xedatutakoak, eta horniduraren titularra aldatzen bada.

46. artikulua. Kontagailuaren manipulazioa.

Abonatuak edo erabiltzaileak ezin izango du inoiz kontagailua edo neurgailua manipulatu, ez eta hargunerik eta desbideraketarik egin aparailuaren aurretik, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren berariazko baimenik ez badu.

47. artikulua. Egiaztapenaren ondoriozko likidazioa.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k komeni dela irizten badio edo abonatuak berak egitea eskatzen badu egin daitezke neurgailuen frogak. Froga hori abonatuak eskatuta egiten bada eta neurgailua aztertu ondoren ondo dabilela egiaztatzen bada, froga egiteak eragiten dituen gastuak eskatzailearen konturakoak izango dira.

Neurgailua ondo dabilela ulertuko da neurketa erroreak, errorik balego, indarrean dagoen araudiak baimendutako tarteen barruan badaude.

Neurgailua aztertu ondoren egiaztatzen bada gaizki dabilela, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.k dagokion likidazioa egingo du.

Azterketa egin ondoren egiaztatzen bada errore positiboa baimendutakoa baino handiagoa dela, itzuli beharreko kopurua zehaztuko da; horretarako, benetan kontsumitutakoa hartuko da kontuan, likidazioa atzeratu behar den hilabete horietan indarrean zeuden tarifen arabera.

Aurreko paragrafoan adierazten den denbora zehazteko, kontagailua instalatu zen egunetik edo kontagailuaren azken egiaztapena egin zen egunetik markaketan errorea egiaztatu zen egunera arte zenbatuko da. Nolanahi ere, denbora hori ez da urtebetetik gorakoa izango.

Kontagailuak emari desberdinekin gaizki funtzionatzen duela egiaztatzen bada, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k itzuli beharreko zenbatekoaren likidazioa egiteko, aurreko paragrafoan adierazitako denbora bera hartuko da kontuan; denbora horretako kontsumoa kalkulatzeko, berriz, kontagailu berria jarri eta hurrengo laurogeita hamar egunetan izandako kontsumoa hartuko da kontuan.

Neurgailua nola dabilen jakiteko egindako azterketetan egiaztatzen bada iruzur egiteko manipulatu egin dela, egiaztatzaileak akta jasoko du, Ordenantza honen 86. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

48. artikulua. Ordeztea.

Kontagailu bat edo neurgailu bat instalaziotik kendu behar bada, konpondu egin behar delako, aldiaren berrikuntza dagokiolako edota ondo dabilen aztertu behar delako, eta ezin bada hura berehala jarri, haren ordez beste kontagailu edo neurgailu bat instalatuko da, ondo dabilela egiaztatu ondoren, eta bera izango da kontsumoa kontrolatuko duena.

Instalatzeko den kontagailu edo neurgailu hori, beti, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jabetzakoa izango da. Alabaina, zaharraren ordez jartzen den kontagailua abonatuaren pertsonaren jabetzakoa den kasuetan, eta konponketaren, aldiko berritzapenaren eta/edo egiaztapenaren ondoren erabilgarria dela irizten bada eta abonatuak bere instalazioan erabiltzen jarraitu nahi badu bere baliogarritasun aldia edo bizitza amaitu arte, berriro instalatuko dio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eta abonatuaren kargura izango dira gastuak.

49. artikulua. Gastuak.

Alde batek eskatuta egin bada egiaztapena, horrek eragiten dituen gastu guztiak eskaera egin duenaren konturakoak izango dira, baldin eta ez bada egiaztatzen tresna gaizki dabilela eta akatsa beste aldearen aldekoa dela.

VIII. ATALBURUA UR HORNIDURAREN BALDINTZAK

50. artikulua. Horniketaren izaera.

Urari ematen zaion erabileraren arabera, hornidura honako hauetan sailkatuko da:

- Etxeko erabilerako kontsumoa.

Lehen erabilerako lizentzia behar duten eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo esparru itxietan egiten den kontsumoa hartuko da etxeko erabilerako kontsumo indibidualtzat.

Etxeko erabilerako kontsumo indibidualak.

Etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan, kontagailu orokor batek neurtutakoak.

Honako hauek dira etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan, kontagailu orokor batek neurtutakoak: lehen erabilerako lizentzia behar duten eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo esparru itxietan egiten diren kontsumoak, baldin eta abonatua etxebizitza bat baino gehiagoko finka baten jabea edo jabeakideen erkidegoren bat bada.

Etxeko erabilerako kontsumoak izango dira ere honako hauetan egindakoak: irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, ospitaleetan eta antzeko guneetan, erlijio guneetan, unibertsitateetan, hirugarren adinekoentzako zentroetan eta ikasle egoitzetan, polizia-etxeetan eta kuarteletan, antzeko bestelako ostatu kolektiboetan eta ur bero sanitarioa berotzeko zentraletan.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretako kontsumoak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretako kontsumotzat hartuko dira beraien jarduera egiteko dagokion baimena duten nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenetan egiten direnak, eta baita ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenaren barne egiten diren ostalaritza jarduerak, horien titularra nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen baimenaren bera baldin bada.

- Industria eta merkataritza erabileretako kontsumoak eta gainontzeko kontsumoak.

Jarduera orokorretako erabilerako kontsumoak.

Ostalaritza jarduerako erabilerako kontsumoak.

Obrak egiteko kontsumoak.

Finka partikularretako ureztaketa eta igeritegi erabilerako kontsumoak.

Udalen, udal bulegoen eta udal entitateen erabilerako kontsumoak eta udalarentzat kudeaketa lanak egiten dituzten enpresa pribatuenak.

Udal Erakundeen erabilerarako horniduratzat hartuko dira udalaren edo partaidetza duen mankomunitatearen izenean daudenak.

Aurreko paragrafoan aipatutako etxebizitza edo esparru batean egoitza erabilera eta jarduera bat aldi berean burutzen direnean, horniketa osoa jardueraren erabilerarako dela iritziko da.

Etxeko erabilerarik ez duen kontsumotzat hartuko dira negozio lokalak edo industriak hornitzeko erabiltzen diren hornidurak, baldin eta ekonomia jardueren gaineko zergan alta ematea beharrezkoa badu jarduerak. Mota horretako horniduratzat hartuko dira, halaber, herri administrazioei eta haien erakundeei egiten zaizkienak, baldin eta duten erabileragatik bestelako erabileretan sartzan ez badira, kontuan hartu gabe jarduerak merkataritza lokaletan edo

etxebizitza izateko lokaletan garatzen duten, betiere ordenamenduak baimena ematen badu kasuan kasuko jardueretarako erabiltzeko. Garaje partikularrei, trastelekuei eta oro har jarduerarik ez duten lokalei egiten zaizkien hornidurak ere mota horretakoak izango dira.

Obra egiteko horniduratzat hartuko da obra edo erreforma beharrei aurre egiteko eta, oro har, obra mota orori aurre egiteko diren hornidurak. Hornidura horiek denbora jakin baterako eta modu prekarioan emango dira, betiere, herritarren premia orokorren menpe.

Finka partikularretako ureztatze eta igerileku erabilerako horniduratzat horretarako propio finka partikular orori ematen zaion hornidura hartuko da, lursail horretan egon edo ez etxebizitza bat, etxebizitza multzo bat, industria, etab.

— Suteei aurre egiteko kontsumoak.

Suteei aurre egiteko horniduratzat horretarako propio kontratatzen direnak hartuko dira.

Adierazitako hornidura mota horietako edozeinetarako egin ahalko dira hornidura bereziak, noizbehinkako edota behin-behineko premiei erantzun behar bazaie. Hornidura horiek ematea hornikuntza eskatu den tokian dauden instalazioen aukeren menpe egongo da, bai eta herritarren premia nagusien menpe ere; nolana ere, hornidura modu prekarioan eta denbora jakin baterako emango da.

51. artikulua. Hornidura bereziak.

Nolana ere, eraikin bakoitzean egon daitezkeen merkataritza edo negozio lokalek beren horniketa independentea izan beharko dute.

52. artikulua. Suteei aurre egiteko hornidurak.

Eraikinen barruko suteen aurkako instalazioek, edozein dela eraikinen erabilera edo xedea, horretarako propio erabiltzeko ur hornidura izan behar dute; horrez gain, ondorio guztietarako, Ordenantza honetan ohiko hornidurarako instalazioentzat xedatutako baldintzak bete behar dituzte, honako irizpide hauen arabera:

1. Instalazioak berezita edukitzea: suteei aurre egiteko instalazioak eta beste edozein erabileretarako instalazioak erabat berezita egongo dira, eta suteei aurre egitekoetatik ezingo da beste erabileraren bat izan dezakeen desbideraketarik egin.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren berariazko baimenik gabe debekatuta dago, halaber, ura hartzea instalazio horietako elementu orotik, suteetan izan ezik.

Suteetarako araudi espezifikoak abonatuaren jabetzako barruko instalazioak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ziurtatzen duen presioa ez den beste presio bat eskatzen badu, abonatuaren erantzukizuna izango da araudi espezifiko horrek xedatutakoa betetze aldera presioa handitzeko gailuak jartzea eta zaintzea.

Suteei aurre egiteko harguneen bidez kontsumitutako ura fakturatuko da. Eta horretarako, kontagailu bat instalatu behar da.

2. Hornidura kontratatzea: Suteei aurre egiteko horniduraren hartune bat banaketa sare publikoari lotzeko, aurretik dagokion hornidura kontratua sinatu behar da Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eta abonatuaren artean.

Kontratu horiek izapidetzeko modua eta ohiko hornidurak izapidetzekoa berbera da, eta, hortaz, arauz ezarritako baldintza berberak bete behar dituzte.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez du inolako erantzukizunik suteen aurkako instalazio partikularren funtzionamenduaren kalkulu, diseinu eta egoeraren inguruan.

IX. ATALBURUA. HORNIDURA EMATEA ETA KONTRATATZEA

53. artikulua. Hornidura eskaera.

Horniketa kontratatu aurretik, interesdunak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k emango dion horniketa eskaera egiteko inprimakia bete eta aurkeztu beharko du.

Eskaera orrian eskatzailearen izena, eskatutako urari eman nahi zaion erabilera, zein finkarako den eta, bide batez, horniketaren ezaugarriak eta baldintzak egokiro definitzeko eta zerbitzu-aren ordainetan dagozkion tarifak aplikatzeko beharrezko izan daitezkeen gainontzeko ingurumarien berri eman behar du. Inprimaki horretan jakinarazpenak egiteko helbidea ere jakinarazi beharko da, ez baldin bada hornidura egingo den lekuarena.

Abonatuak datuak abonatuak izeneko fitxategi batean sartuko dira, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroan inskribatuta eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren ardurapean dagoena, eta datuok Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak agindutakoaren arabera tratatuko dira. Datuak Gipuzkoako Urak, S.A.-ri lagako zaizkio eta Tratamenduaren Arduradun bezala jardungo du. Aipatutako fitxategiak beharrezko segurtasun neurriak ditu datuen erabateko segurtasuna bermatzeko.

Abonatuak, sarbide, zuzenketa, kitapen eta aurkaritza eskubideak erabili ditzake Segurtasun Arduradunari zuzenduta honako helbidera idatzita lopd@gipuzkoakour.eus emango zaion formularioaren bidez.

Adingabeko emantzipatu gabekoek ezingo dute kontratatu. Emantzipatutakoen kasuan, beraien egoera notarioaren aurrean sinatutako emantzipazio agiriaren bitartez egiaztatu beharko dute.

Horniketa eskatzeko araututako inprimakian jasotako datu guztiak zuzenak izatea eskatzailearen erantzukizuna izango da eta aipatutako horniketa arautzeko oinarri gisa erabiliko dira.

Horniketa eskaerarekin batera, interesdunak ondorengo dokumentazioa erantsiko du:

- a) Etxebizitzetako abonatuak:
 - Jabetza eskritura, errenta kontratua edo horniketa eskatzen den higiezia erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.
 - Kontratatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.
 - Instalazio buletina, Industriako Ordezkaritzak ikus-onetsia.
- b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako abonatuak:
 - Ustiapen baimena.
- c) Merkataritza, Industria eta gainontzeko abonatuak:
 - Jardueraren lizentzia edo lizentzia eskaera edo, bestela, hornidura kontratatzeko udal baimena.
 - Jabetza eskritura, errenta kontratua edo horniketa eskatzen den higiezia erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duen agiria.

- Kontratatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- Instalazio buletina, Industriako Ordezkaritzak ikus-onetsia.

Lehen erabilerako etxebizitzan edo lokalen kasuan edo barne instalazioak aldatu badira, ezinbestekoa izango da instalatzailearen buletina aurkeztea, Industria Ordezkaritzak onetsia.

C motako erabiltzaileek (ikus eranskina): isurketa baimenaren eskaera beteta eta dagokion dokumentazioarekin batera.

54. artikulua. Behin-behineko hornidurak.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ureztatze ahoen bidezko hornidurak kontratatu ahal izango ditu, baina aldi baterako baino ez. Hornidura horiek eskatzen dutenei bakarrik emango zaizkie. Mota horretako kontratuak gehienez ere hiru hileko indarraldia izango dute. Kontratatu beharreko bolumena Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zehaztuko du, eta ez da eguneko 5 m³ baino txikiagoa izango. Ureztatze ahoen bidezko behin behineko hornidura aldeztu aurretik ordaindu beharko da, kontratuaren indarraldiko eperako kalkulaturako kontsumoari dagokion zenbatekoa, hain zuzen; horrez gain, ureztatze ahoetan izan daitezkeen kalteei aurre egiteko fidantza edo berme bat jarri beharko da. Kontratuaren indarraldia amaitzean, kalkulaturako kontsumoaren eta benetan kontsumitutakoaren arteko aldeak likidatuko dira.

Ureztatze aho horietako behin-behineko hargunak abonatuak egingo ditu Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k adierazitako puntuan eta baldintzetan, ur jarioak eragozteko. Behin aho horiek erabili eta gero, ondo itxita utzi beharko dira, ura alferrik gal ez dadin. Oker erabiltzeagatik ureztatze ahoetan eragindako kalteak konpontzeko gastuak abonatuaren konturakoak izango dira, eta jarrita zuen fidantzatik kenduko zaio.

Kontagailua hodiaren gainean jarriko da. Instalazioa abonatuaren kargura egingo da, eta, zaindu eta behar beste segurtasun neurri hartuko ditu ez dezaten lapurtu, hondatu edo, gaizki jarrita egoteagatik, ez dezan istripurik eragin. Kontagailuak Ordenantza honetan adierazitako ezaugarriak bete behar ditu.

Abonatuak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko langileei edo hark baimendutako langileei, edota udaltzainei erakutsi beharko die hornidura kontratua, haiek hala eskatuz gero.

Instalazioa ikuskatu ondoren, ura alferrik galtzen dela edo erabilera desegokia ematen zaiola egiaztatuko balitz, kontratua suntsitu eta hornidura eten egingo da. Abonatuak hornidurarako erabiltzen dituen hodiak eta mahukak behar bezala babestu eta zaindu beharko ditu, jariorik izan ez dezaten.

Abonatuak, kontratuaren indarraldian, kontratatutako hargunea ureztatze aho batetik beste batera aldatu nahi badu, aurretik eskatu egin beharko du eta eskaeran adierazi hargune berria non dagoen eta kontagailuak une horretan erakusten duen neurketa.

Bide publikoa ureztatzeko kontratuak urtebeteko indarraldia izango dute eta ez dute arestian adierazitako betebeharririk. Alabaina, hilero jakinarazi beharko zaio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri kontagailuaren neurketa eta, horrez gain, urtean behin, Gipuzkoako Urak erabakitzen duen egunean, kontagailua aurkeztu beharko da egiazta dezan.

55. artikulua. Kontratazioa.

Horniketa eskaera egin ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, gehienez ere hamabost laneguneko epean, horniketa egiteko eskakizunak eta baldintzak jakinaraziko dizkio eskatzaileari.

Eskatzaileak, behin eskakizunen eta baldintzen jakinarazpena jaso ondoren, hogeita hamar eguneko epea izango du kontratua sinatzeko. Epe hori igaroko balitz araututakoa bete gabe, eskaerak bere indarra galduko du eta ez du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-rentzako bestelako obligaziorik sortuko.

Nolanahi ere, horniketa kontratu edo poliza horrek ez du indarrik izango, eskatzaileak, Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat, ordaindu edo bete behar dituen obligazio ekonomiko, tekniko eta administratiboak betetzen ez dituen bitartean.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ez dizkie emango, inola ere, ur hornikuntza edo eta saneamendu zerbitzurik Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri dirurik zor dioten eskatzaileei, nahiz eta horiek emakida jasotzeko eskubidea izateko baldintzak bete, zenbateko hori edo horiek (gerta litezkeen gastu, galkargu eta guzti) kitatzen ez diren bitartean.

Behin eskatzaileak eskubideak ordaindu eta dagozkion betebeharrak bete ondoren, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k instalazioa eta horniketa martxan jartzeko obligazioa dauka kontratazioa eta ordainketa egindako datatik hamabost egun balioduneko epean.

Nolanahi ere, lanak burutzeko behar diren baimenak lortzean atzerapenik izango balitz, aurreko paragrafoan finkatutako epea etetea ekarriko du. Atzerapen horren berri emango dio idatziz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzaileari.

56. artikulua. Kontratua ukatzeko arrazoiak.

Ur hornidura emateko ahalmena Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri dagokio, indarrean dauden erregelamenduzko arauen arabera.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horniketa kontratatzea uka dezake ondorengo kasu hauetan:

1. Horniketa eskatzen duen pertsonak edo entitateak, ur horniketaren kontratazioari buruz indarrean dauden xedapenen eta baimendutako eredu baten arabera idatzitako kontratua sinatzeari uko egiten dionean, edo legez ezarritako dokumentazioa aurkezten ez duenean edo, azkenik, dagozkion ordainketak egiten ez dituenean.
2. Eskatzailearen instalazioan betetzen ez badira, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren iritziz eta behin egiaztatu ondoren, indarrean dagoen araudiak orokorrean xedatzen dituen arauak. Halakorik gertatuz gero, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskatzaileari jakinaraziko dio zer akats aurkitu dituen, konpon ditzan.
3. Ur hornidurarako hargunea ez badu, edo hondakin urak eta euri urak husteko baimenik ez badu.
4. Hornidura eskatu duen pertsonak, aurrez, ur horniduraren zenbatekoa ordaintzeari utzi diola egiaztatzen bada.
5. Hornitu beharreko lokalak aurretik beste hornidura kontratu bat badu eta hura indarrean badago.
6. Hornidura eskatu duen pertsonak dagozkion baimenak (hirugarren pertsonenak) lortu dituela modu sinesgarrian egiaztatzen ez baditu.
7. Udalak ukatzen duenean horniketa ematea.

57. artikulua. Kontratazio kuota.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri ur horniketa eskatzen dioten pertsonak kontratua formalizatzen eratorriko izaera tekniko eta administratiboetako gastuak ordaintzeko egin beharreko konpentsazio ekonomikoa da.

58. artikulua. Fidantzak.

Abonatuak, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egokitzen jotzen duen kasuetan, fidantza edo banku abal bat jartzera behartuta egongo da, izan dezakeen edozein zorpekoen ordainketari aurre egiteko erabiliko dena. Abal horren zenbatekoa zerbitzuaren arduradunek ezarriko dute, kontuan izanik kontagailuaren gaitasun nominala bider hamabi hilabetez hilean hogeita hamar orduko erabilera emanda.

Noizbehinkako, behin behineko edo egoera jakin bati erantzuteko horniketetan, eta izaera horrekin eskatzen diren kasuetan, erabilera edozein izanik eta aurreikusitako kontsumoen aurre-likidazioa egitearen kalterik gabe, fidantzaren zenbatekoa, aurrez erabakitakoaren ondorioz ateratzen den zenbatekoaren bost halako izatera iris daiteke.

Inoiz eta salbuespen gisa, kontagailurik gabeko horniketarik baimenduko balitz, kontagailuaren kalibrearen baliokidetzat hargunean erabilitako kalibrea iritziko da, eta fidantza kalkulatzeko aurrez azaldutako irizpide bera erabiliko da.

59. artikulua. Horniketa kontratua.

Entitate hornitzailearen eta abonatuaren arteko erlazioa horniketa kontratuak edo ordainketa polizak arautuko du.

Horniketa kontratua izango da zerbitzuaren emakida legeztatuko duen agiri bakarra eta, Ordenantza honetan ezarritako baldintzekin batera, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren eta abonatuaren arteko harremanak arautuko ditu. Aipatutako kontratu hori idatziz eta ale bikoitzean jasoko da. Ale bat, behar bezala beterik, abonatuari emango zaio, eta bertan, gutxienez, ondorengo datu hauek jaso beharko dira:

a) Entitate hornitzailearen identifikazioa: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.

I.F.K. A-20.471462. Portuetxe 16.

Ur zerbitzuaren telefonoa 902.302.222

b) Abonatuaren identifikazioa:

Izen-deiturak edo egoitza soziala.

NAN edo IFK

Helbidea (hornitutako higiezina ez denean). Ordezkararen datuak, horrelakorik balego:

Izen abizenak.

NAN edo IFK

Ordezkapenaren izaera.

c) Hornitutako finkaren datuak:

Helbidea.

Solairua, letra, eskailera.

Etxebizitza kopurua, guztira:

Telefonoa:

d) Horniketaren ezaugarriak:

Tarifa.

Hargunearen diametroa, hala balitz.

e) Neurgailua:

Fabrikazio zenbakia. Kalibrea, milimetrotan emana.

f) Baldintza ekonomikoak.

Hargune eskubideak, baleude. Kontratazio kuota, hala badagokio. Zergak, balegozkio.

Fidantza, balegokio:

g) Ordainketa tokia:

Banku-helbideratzea egiteko datuak.

h) Kontratua sinatzen den tokia eta eguna.

i) Aldeen sinadurak.

j) Baldintza orokorrak.

60. artikulua. Sinatu beharreko kontratuak.

Kontratuak horniketa mota bakoitzarentzako ezarriko dira eta, horrenbestez, tarifa edo baldintza bereziak aplikatu behar diren kasuetarako beste kontratu batzuk sinatu beharko dira derrigorrez.

61. artikulua. Kontratuaren sinatzaileak.

Horniketa kontratua Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eta hornitu behar den finkaren, lokalaren edo industriaren erabilera eskubidearen titularrak, edo berau ordezkatzeko duen pertsonak, sinatuko dute.

62. artikulua. Abonatuen eta erabiltzaileen toki aldaketa

Etkez aldatzeak eta lokala kontratua sinatu zuen pertsona ez den beste batek okupatzeak beste kontratu berri bat sinatzea dakar berez, edota, hala nahi izanez gero, aurrekoaren subrogazioa egitea; baina, betiere, Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen badira.

Indarrean dagoen kontratua izenpetu zuen pertsona ez den beste batek lokala okupatzeko eskubidea duela egiaztatzen badu, aurreko kontratuaren baja eman daiteke eta alta berri bat egin, horren kostea ordainduz Ordenantza honek ezarritakoaren arabera.

63. artikulua. Kontratuaren subrogazioa.

Horniketa kontratuaren titularra hiltzen denean, haren ezkontidea, ondorengoak, adopziozko seme-alaba osoak, aurrekoak eta anai-arrebak, baldin eta normalean etxebizitzan bizi izan badira hil baino bi urte lehenago gutxienez, subrogatu ahal izango dira kontratuaren eskubide eta betebeharratan. Nolanahi ere, bi urteko bizikidetzat hori ez da beharrezkoa izango hildakoaren guraso-ahalaren mende zeudenentzat, ezta ezkontidearentzat ere.

Era berean, beste oinordeko legatudun batengan ere subroga daitezke eskubideak eta betebeharrak, betiere hornidura egiten den etxebizitzaren edo lokalaren jabetza edo eskubidea beretzat hartzen badu.

Entitate juridikoen kasuan, subrogatzen duenak edo eskubideetan eta betebeharretan hura ordezkaturako duenak, gauza bera egin dezake horniketa kontratuari dagokionean; baina, beharrezko baimen administratibo guztiak Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-n aurkeztearen baldintzapean.

64. artikulua. Kontratuaren xedea eta irismena.

Hornidura kontratua unitate independente edo bereizi bat eratzen duen etxebizitza, etxe, lokal, industria edo obra bakoitzeko sinatuko da.

Hornidura bakoitza horniketa eman zaion xederako izango da; horrenbestez, debekatuta dago bestelako xedeetarako erabiltzea edo haren irismena aldatzea, eta halakorik eginez gero, beste eskaera bat egin beharko da eta dagokion kontratua sinatu.

65. artikulua. Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren iraupena mugagabea izango da, bestelako eperen bat finkatzeko berariazko akordiorik izan ezean. Alabaina, abonatuak edozein garaitan erabaki dezake kontratuaren iraungipena, baina, horretarako, erabakia Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ri jakinarazi beharko dio hilabeteko aurrerapenarekin eta egon daitezkeen zorrak alde aurretik kitatu beharko ditu.

Obretarako hornidurak, lokal eramangarrietan egiten direnaldi baterako ikuskizunetarako hornidurak, eta, oro har, aldian aldiko jardueretarako hornidurak beti denbora jakin baterako kontratatuko dira.

Denbora jakinerako kontratuak luzatu ahal izango dira horniketaren titularrak eskatuz gero, baina justifikatutako arrazoiengatik izan beharko da eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k bere adostasuna berariaz adierazten badu.

66. artikulua. Hornidura eteteko arrazoiak.

Gipuzkoak Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, indarrean dagoen legediaren babesean gauzatu ditzakeen ekintza zibil edo administratiboez gain, abonatuak hornidura eten ahal izango die kasu hauetan:

- a) Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k fakturak ordaintzeko finkatutako epean fakturak ordaintzen ez direnean.
- b) Hornidura baldin badu bere izenean kontraturik izan gabe eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa-k eskatuta ere sinatzeari uko egiten badiu.
- c) Iruzur egin osteko behin betiko likidazioaren zenbatekoak edo iruzurra behin baino gehiagotan egin duela egiaztatzearen ondoriozko zenbatekoak hamabost egun balioduneko epean ordaintzen ez baditu, jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.
- d) Abonatuak hornidura kontratuan adierazitako erabilera ez den beste erabilerako baterako ura erabiltzen duen guztietan.
- e) Hornidura kontratuan adierazita ez dauden beste finka, lokal edo etxebizitza batzuk urez hornitzeko abonatuak bere instalazioan desbideraketak egiten badiu edo egiten uzten badu.

- f) Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko langileek hornidura sareetan kontraturik gabeko ur kontsumoak, hau da ezkutukoak, hautematen baditu. Halakoetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k berehala eten dezake ur hornidura hartune horietan.
- g) Abonatuak ez badie sartzen uzten kontratu bidez hornitzen den lokalean, laneko orduetan edo jendearekiko harremanetarako ordutegian, erakundeak baimendutako eta dagokien akreditazioa ikusgai duten langileei, instalazioak azter ditzaten. Halakoetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k gertatutakoaren akta jaso behar du.
- h) Abonatuak ez badu kontratua betetzen, edozein dela gaia, edo ez baditu zerbitzua erabiltzeko baldintza orokorrak betetzen.
- i) Ura erabiltzeko modua dela-eta edo barruko instalazioek duten egoera dela-eta banaketa sareko uraren edangarritasunean kalteak eragin badaitezke, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hornidura berehala eten ahal izango du egoera horiek eragozteko abonatuak neurri egokiak hartzen ez dituen arte.
- j) Abonatuak uko egiten badio kontagailuaren erregistroa edo kutxatila aldatzeari, edota barruko instalazioa aldatzeari, baldin eta hala egitea beharrezkoa bada Ordenantza honetan baimendutako arazoak direla-eta kontagailu zaharra kendu eta beste bat jartzeko.
- k) Abonatuak ura beste jatorri bateko urarekin nahasi eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k arazo hori konpontzeko eskatzen badio eta bost eguneko epean agindutakoa betetzen ez badu.
- l) Abonatuari egotzi dakioken arrazoi batengatik hamabi hileko epean irakurketa egitea ezinezkoa bada horretarako propio ezarritako prozedura arruntari jarraituz, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k hornidura aldi baterako eten ahal izango du, abonatuak, bere kargura eta kontura, irakurketa egiteko sarbiderako oztopoak kentzeko instalazioan aldaketak egiten dituen arte.
- m) Abonatuaren utzikeria hautematen bada; hau da, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k idatziz jakinarazten badio abonatuari bere instalazioetan dagoen matxura konpontzeko eta zazpi egunen buruan matxura ez bada konpondu.

67. artikulua. Hornidura eteteko prozedura.

Ordenantza honetan xedatutako berehalako etenaldien kasuetan izan ezik, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k erabakia jakinaraziko dio abonatuari. Jakinarazpena igorri eta hamabost egun baliodunen buruan arazoa ez bada konpondu, hornidura eten egingo da.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ezin izango du hornidura eten, berehala eten dezakeen kasuetan izan ezik, jaiegunetan edo, edozein arrazoi tarteko, jendearen harrerarako zerbitzu administratiborik eta teknikorik ez dagoen egunetan (zerbitzua berrezartzeko izapide guztiak egin ahal izateko), ez eta antzeko egoerak gerta daitezkeen egunen bezperetan ere.

Zerbitzua egun berean berrezarriko da, edo ezin bada, hornidura etetea eragin zuten arazoak konpondu direla egiaztatu eta hurrengo egunean.

Hornidura eten egingo delako jakinarazpenean, gutxienez, honako hauek adierazi behar dira:

- Abonatuaren izen-abizenak eta helbidea.
- Hornidura etetea eragin duen arazoaren xehetasunak.
- Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.ren helbidea, telefono zenbakia eta bulegoen ordutegia, hornidura etetea eragin duten arazoiei irtenbidea eman ahal izateko.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k konektatuko du berriro hornidura. Berriz konektatzerakoan kontagailu berri bat instalatu beharko da edo, bestela, kendutako bera ipiniko

da Industria Ordezkaritzak berriro egiaztatu ondoren. Abonatuak ordainduko ditu kontagailu berria, egiaztapena, altako kuota eta kontagailua kentzeko eta berriro instalatzeko gastuak.

Ez ordaintzeagatik eten bazaio hornidura, kontratua amaitutzat joko da, eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskubidea izango du zorra eta eragindako kalteak eta galerak ordain diezazkioten eskatzeko. Baldin eta etenaldiaren egunetik hasi eta hiru hilabeteko apean abonatuak ordaintzeko zeuden ordain-agiriak ordaindu baditu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k kontratua berriro indarrean ipini dezake.

68. artikulua. Hornidura kontratuaren iraungipena.

Ur hornidurarako kontratua, Ordenantza honetako 67. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik hornidura eteteko bideak gauzatu ahal izateaz gain, honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

1. Abonatuak horrela eskatutakoan, betiere, ordaindu gabeko zorrik ez badu.
2. Entitate hornitzaileak hala erabaki duelako, kasu hauetan:
 - a) Ordenantza honetako 66 . artikuluan hornidura eteteko araututako edozein arrazoietakoren batengatik.
 - b) Hornidura kontratuan ezarritako baldintzak eta epea bete badira.
 - c) Hornidura kontratua sinatu zenean zeuden zerbitzuen eta instalazioen erabilera aldatzen bada, bai eta hornitzen zen finka handitu, erreformatu edo eraitsi bada ere.
 - d) Abonatu hil delako, beti ere, oinordekoek ez badituzte kontratuaren datuak eguneratzen.

Adierazitako arrazoi horietakoren batengatik kontratua iraungi ostean zerbitzua berriro ere abian jartzeko, derrigorrean egin behar da beste eskaera bat, kontratu berri bat sinatu eta dagozkion zergak ordaindu.

X. ATALBURUA. HORNIDURAREN ERREGULARTASUNA

69. artikulua. Zerbitzu etengabea.

Ezinbesteko arrazoiak tarteko eta instalazio publikoetan gerta daitezkeen matxurak salbu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. behartuta dago zerbitzua etenik gabe ematera, baldin eta hornidura kontratuan edo polizan aurkakoa ez bada jaso.

70. artikulua. Denbora jakin bateko etenaldiak.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k aldi jakin batez eten ahal izango du zerbitzua, ezinbestekoa baldin bada bere kargurako instalazioetan mantentze lanak, konponketak edo hobekuntzak egiteko.

Aurreikusitako eta programatutako etenaldietan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k eskura dituen bitartekoen bidez eta behar beste denboraz eman beharko die horren berri erabiltzaileei, informazioa jasoko dutela bermatzeko moduan.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren kargurako instalazioetan matxurak daudelako eten bada hornidura, eta bederatzi egun jarrai 71baino gehiago irauten badu etenaldiak,

abonatuak eskubidea izango du kuota finkoaren edo zerbitzuko kuotaren zati proportzionala itzul diezaioten eskatzeko (Ordenantza honetako 88. artikulua).

71. artikulua. Ur erreserbak.

Sektore bakoitzaren arau zehatzetan ezarritakoaren kalterik gabe, ura osasun publikorako edo pertsonen zein ondasunen segurtasunerako ezinbestez eta etengabe beharrezkoa den jardueraren bat gauzatzen duten lokaletan, eta, bereziki, ospitaleetan, produktu sukoiaren eta erregaien biltegietan eta merkataritzagune handietan, ur erreserbako deposituak jarri behar dira; eta ur deposituek jarduera bakoitzak oinarrizko premiei gutxienez hogeita lau orduz aurre egiteko adinako ur kantitatea izan behar dute.

Produktzio prozesuan edo jardueran ura ezinbesteko elementua den industrietan edo jardueretan ere erreserba handitu eta zehaztu behar da, ura gutxienez hogeita lau orduz izango dela ziurtatzeko.

72. artikulua. Murrizketak horniduran.

Lehorteak izan badira, ur emariak urriak badira edo ura tratatzeko arazoak direla-eta komeni dela ikusiz gero, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k abonatuak ur horniduran murrizketak egitea erabaki dezake.

Halakorik egin behar izanez gero, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k derrigorrez informatu behar ditu abonatuak, ahalik eta modurik argienean; hain zuzen, komunikabideen bidez jakinarazi behar die zer neurri hartuko dituen eta zer egunetan jarriko dituen abian neurri horiek. Ezin bada komunikabideen bidez jakinarazi, abonatu bakoitzari gutun bat bidali behar dio neurriez informatzeko.

Erabiltzaileen beharrei aurre egiteko ur emari nahikorik ez dagoelako eten bada ur hornidura, kontratatutako erabilera modalitatea hartuko da kontuan ur hornidura murrizteko, eta Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan edo, kasuan kasu, Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Hidrologikoan adierazitako aprobeitxamenduen lehentasunen alderantzizko hurrenkeran etengo da.

XI. KAPITULUA IRAKURKETAK, KONTSUMOAK ETA FAKTURAZIOAK.

73. artikulua. Irakurketaren maiztasuna.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. behartuta dago irakurketak egiteko sistema iraunkorra eta aldizkakoa ezartzera, helburu izanik abonatu bakoitzaren kontagailuaren irakurketa, ahal den neurrian, ziklo berdinetan egitea.

74. artikulua. Irakurketarako ordutegia.

Irakurketak lanegunetan eta laneko edo jendearekiko harremanetarako ordutegian egingo dituzte Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horretarako propio baimendutako langileek, nork bere identifikazio txartela soinean daramala.

Abonatuak ezin izango du inola ere behartu ordutegi horretatik kanpo egitea irakurketa; hau da, abonatuak ezin izango du Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k irakurketa egiteko ezarritako ordutegitik kanpo irakur dezaten eskatu.

Behin-behineko hornidura baimena eman bada eta hornidura hori neurgailu eramangarrien bidez kontrolatzen bada, abonatuak kasuan kasuko kontratuan edo baimenean adierazten diren toki edo lokaletan eta egunetan aurkeztu behar ditu neurgailu eramangarri horiek, irakurketa egin dezaten.

75. artikulua. Abonatuak irakurketa egitea.

Abonatu bertan ez dagoelako irakurketa egitea ezinezkoa izango balitz, irakurketa egin behar zuen langileak txartel bat helaraziko dio abonatuari, etxebizitzaren ate azpitik sartuta edo postontzian utzita, abonatuak berak irakurketaren datuak eman ahal izateko.

76. artikulua. Kontsumoak zehaztea.

Oro har, abonatu bakoitzaren kontsumoa zehazteko, segidan fakturatutako bi epeetako irakurketen arteko aldea hartuko da kontuan.

Abonatuaren ohiko kontsumoa aldatzen duen ezkutuko matxura bat dagoela egiaztatzen bada, fakturatutako kontsumoak ezingo du % 400 gainditu ondoren zehazten diren aukeretatik handiena:

- a) Azken lau hiruhilekoetan fakturatutako kontsumoaren batez bestekoa aplikatzearen emaitza
- b) Kontuan hartu beharreko urtearen hiruhileko berean egindako azken bi likidazioen kontsumoaren batez bestekoa aplikatzearen emaitza.

Fakturatuko den kontsumoa % 400-ea mugatzea soilik ezkutuko matxura egon den bi hiruhilekotan izango du eragina, eta fakturatuko den hiruhileko bakoitzari dagokio.

Aipatutako irizpideak abonatuak kontratatuta dituen kontzeptu guztietan izango du eragina (Ura, Arazketa eta Finantzaketa plana).

Ezkutuko matxurak behin eta berriz gertatzen badira inbertsio faltagatik, ez da aipatutako kontsumo mugaketarik egingo fakturan.

77. artikulua. Iritzira kalkulaturako kontsumoak.

Benetan zenbat kontsumitu den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako edo irakurketa egin nahi zen denetan abonatu ez zegoelako, aurreko urteko denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da kontsumoaren fakturazioa; hala ere, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko 12 hilabeteetan izandako kontsumoaren batez besteko aritmetikoaren arabera likidaturako dira fakturak, betiere, aurreko hilabete guztietako irakurketak baldin badaude.

Ondorengo kasu hauetan, kontagailuaren kapazitate nominala hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu bezalako kontsumoa fakturaturako da: aurreko paragrafoan aipatzen den batez bestekoa lortzeko datu historikorik ez dagoenean; abonatuari eskatu bere barne instalazioetan kontagailua aldatzeko egin beharreko konponketak egiteko, kontagailua matxuratu delako edo aldatu beharra dagoelako, eta 30 eguneko epean ezer egin ez duenean; eta lehen aipaturako arrazoiengatik kontagailua aldatzen saiatu eta abonatuak 30 egunez sartzen utzi ez duenean.

Horrela kalkulaturako kontsumoak behin betikoak izango dira kontagailua aldatzeko beharra badago. Gainerako balizko egoerei dagokienez, berriz, benetako irakurketa egin ondoren egoera normalizatu egingo da, goitik edo behetik, eta ondorengoaldi bakoitzean egiten den irakurketaren arabera zehaztuko dira kontsumoak.

Kontsumoak kalkulatzeari ere ekin ahal izango zaio, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-n abonaturakoak emandako neurgailuen datuak ikusirik, bertan jasotzen diren kontsumoek abonatu horrek izan ohi duen kontsumo erregimenarekin bat ez datozenean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasuetan, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k, epe edo aldi horretako fakturazioa egiteko xedez, kontsumoak kalkulatzea edo hurrengo aldira atzeratzea erabaki dezake, eta azkeneko aldi horretan bildu bi aldi horietako kontsumoak.

78. artikulua. Fakturazioaren xedea eta maiztasuna.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k XIII. kapituluaren adierazitako eta kasu bakoitzari dagozkion kontzeptuak fakturaturako ditu, hornidura motaren eta unean-unean indarrean dauden tarifen arabera.

Kontsumoak hornidura epeak amaitutakoan fakturaturako dira, eta epe horiek gehienez ere lau hilekoak izango dira. Lehenengo aldia instalazioa abian jartzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

79. artikulua. Fakturen eta ordainagirien baldintzak.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzearen ondorioz abonatuak ordaindu beharreko zenbatekoak jasotzen dituzten ordainagirik indarrean dagoen legediak unean-unean xedatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte, eta, horrez gain, haietan modu argi eta ulergarrian adierazi behar dira prezioak eta kontsumoak eta erabiltzailearentzako interesekoak diren gainerako datuak.

80. artikulua. Ordainagiritako informazioa.

Fakturazioaren kontzeptuetan edo fakturatzeko moduetan aldaketa nabariak gertatzen badira, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k tarifak aplikatzeko moduari buruzko informazioa helaraziko die abonatuari, eta, horrez gain, fakturatutako kontzeptuak zer xedapenetan dauden jasota jakinaraziko die.

8. artikulua. Epeen zenbaketa.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k ordainagiriaren zenbatekoa ordaintzeko zer epe daukaten jakinarazi behar die abonatuari.

Banakako kobrantzako abisuen bidez, edo udalerrian hedapen handien duen komunikabidean publizitate orokorra jarriz edota indarrean dagoen legediak onartzen duen jakinarazpen prozedura ororen bidez jakinarazi ahalko die abonatuari ordaintzeko zer epe dauden.

Ordainketa bankuren batean helbideratuta badago, ez da derrigorrezkoa informazio hori helaraztea.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu gabe dauden erreziboak betearazpen-bidera pasako dira, eta ordaindu beharreko zenbatekoa martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritakoaren arabera izango da.

82. artikulua. Fakturak edo ordainagiriak ordaintzeko modua.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k fakturatutako zenbatekoak honako bide hauetako batetik ordaindu ahal izango ditu abonatuak:

- Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k adierazitako banketxeetan.
- Abonatuak adierazten duen banku kontuan helbideratuta.

83. artikulua. Fakturazioko akatsen zuzenketa.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k akats baten ondorioz behar baino kopuru txikiagoak fakturatu baditu, faktura bakar bat egingo du diferentzia horregatik, zatika ordainduko dena, kontraktorik adostu ezean, fakturazio okerren aldiaren iraupen bereko epean, gehienez ere urtebeteko mugarekin.

Akats baten ondorioz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k behar baino kopuru handiagoak fakturatu baditu, faktura horiek baliogabetu egingo dira eta behar bezala egingo dira berriz, eta aldea abonatuari itzuliko zaio. Atzeraeragineko epea ez da, inolaz ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak ezarritakoa baino luzeagoa izango.

84. artikulua. Aldez aurretik erabakitako kontsumoak.

Bolumen edo emari finkoko hornidura edo denbora jakin batez erabiltzeko kopuru zehatz bat kontratatuta duten instalazioetan –izan aldi baterako kontratua, izan modu prekarioan emandako hornidura kontratua, edo izan beste egoera bereziren baten ondorioz kontratatukoa–, ezin izango da hitzartutako kontsumoak ez diren bestelako kontsumoak zenbatu, iruzurrezko erabilera edo ezarritako kontratua betetzen ez denean salbu.

Halako hornidura kontratua sinatu duen pertsonak, halaber, ezingo du inolako arrazoirik eman edo baldintzarik argudiatu, hitzartutako kontsumoetan edo kopuruetan murrizketarik egiteko.

Aldez aurretik erabakitako kontsumoetan, fakturazioa aldez aurretik egin ahal izango da, edo zerbitzua ematen hastean.

XII. ATALBURUA IRUZURRAK UR HORNIKETAN

85. artikulua. Iruzurraren definizioa.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k iruzurra egon dela ulertuko du kasu hauetan:

1. Ur hornidurarako kontraturik ez izatea.
2. Kontagailua edo neurgailuaren erregistroa manipulatzeko edo aldatzeko edozein prozedura erabiliz.
3. Emariaren deribazio iraunkorrak edo zirkunstantzialak egin izana neurketa-ekipoen aurretik.
4. Ura kontratatutakoez bestelako erabileretarako erabiltzea, aplikatu beharreko tarifaren araberrako kontsumoen fakturazioari eraginez.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ko langileek deribazioak aurkitutakoan Gipuzkoako Urak-en sareetan hornidura izateko inolako kontraturik gabe, hau da, modu klandestinoan egindakoak, hornidura berehala eten ahal izango dute deribazio horietan.

Iruzur salaketa bat egiaztatuzera joandakoan abonatuaren etxebizitzara sartzea galarazten bazaio Gipuzkoako Urak-ek baimendutako langileari, hornidura eten ahal izango da.

86. artikulua. Likidazioa iruzur egiteagatik.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k dagokion likidazioa egingo du, kasu bakoitzaren arabera, honako era honetan:

- 1. kasua. Iruzurratiko likidazio bat egingo da, eta, bertan, iruzurra egiteko erabilitako instalazio horretan erregelamenduz erabili beharko litzatekeen kontagailuaren kapazitate nominaleko kontsumoa egotziko zaio irizpide honen arabera: titulartasuna edo aipatutako instalazioen erabilera eskubideak eskuratu zenetik detektatutako iruzurra zuzendu arte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa. Nolanahi ere, denbora hori ez da urte bat baino handiagoa izango.
- 2. kasua. Instalatutako kontagailuaren edo neurketa-aparailuaren adierazleak faltsutu badira, beraien funtzionamendu okerra eragiten duten prozedura edo gailuak erabiliz, iruzurraren zenbatekoaren likidazioa finkatzeko oinarri gisa nominalaren kapazitatea hartuko da eta honela kalkulatu da kontsumoa: kontagailuaren azken egiaztapen ofiziala egin eta iruzurra zuzendu arte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa. Nolanahi ere, denbora horretan ordaindu dituen kontsumoak deskontatuko zaizkio iruzurgileari.
- 3. kasua. Iruzurra egin bada emaria kontagailuaren aurretik desbideratuz, lehen kasuan bezala likidatuko da, horniketa kontraturik izango ez balitz bezala, eta ez da kontagailuan neurtutako uraren deskonturik egingo.
- 4. kasua. Kasu honetan, bidegabe erabilitako ur kopuruaren likidazioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren alde egingo da, eta kontsumoaren likidazioa egiteko unean indarrean dagoen tarifaren -urari eman zaion benetako erabilerari dagokiona- eta aldi

horretan kontratatutako erabileraren arabera aplikatu denaren artean dagoen aldea aplikatuko zaio. Denboraldi hori ezingo da urte bat baino handiagoa izan.

Kontagailuaren emari nominaltzat hartuko dira, kontrakorik erakusten duen frogarik aurkezten ez den bitartean, ondorengo taulan kontagailuaren diametroaren arabera, jasotzen direnak:

Kalibrea / mm	Emari nominala (m ³ /h)
13 mm	1,5
15 mm	1,5
20 mm	2,5
25 mm	3,5
30 mm	6,0
40 mm	10,0
50 mm	50,0
65 mm	65,0
80 mm	120,0
100 mm	180,0
125 mm	180,0
150 mm	250,0
200 mm	480,0

Aurrez aipatutako lau kasuetan ezarritakoaren arabera ondorioztatutako iruzurraren zenbatekoari fakturatu beharreko kontzeptu guztiak eta indarrean dauden zergak aplikatuko zaizkio.

Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k egiten dituen likidazioak interesdunei jakinaraziko zaizkie. Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte likidazio horien aurka.

XIII. ATALBURUA TARIFAK EZARTZEKO SISTEMA

87. artikulua.- Baldintza orokorrak.

Ordenantza honetan hau hartuko da tarifa sistematzat: abonatuak ordaindu beharreko prezioa osatzen duten kontzeptuen multzoa, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k zerbitzuak eskaintzeko oreka ekonomikoa eta finantzarioa lortzeko eta hari eusteko.

Udal bakoitzak erabakiko du kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren ala ez.

87.1. artikulua. Familia ugaria eta nekazaritzako eta abeltzantzako ustiapenak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren udaletan, familia ugarien etxe (3 seme-alaba edo gehiago) eta nekazaritzako eta abeltzantzako ustiapeneko 30 m³-tik gorako kontsumoak lehenengo tarterako, 90 m³ artekoa, ezarritako prezioan fakturatuko dira. Hortik aurrera 90 m³ baino gehiagoko tartearen prezioan fakturatuko da.

Interesdunek artikulua honetan ezarritakoa eskatu beharko dute eta familia ugaria direla egiaztatu.

87.2. Jabekideen komunitateak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren udaletan kontsumoaren faktura tarteka egiten denez, jabekideen komunitateetako etxe kontsumoak lehenengo tarterako ezarritako prezioan fakturatuko dira. Ur beroaren kontsumoa kontagailu orokorretik pasatzen den jabekideen komunitateetan berdin jokatu da.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren udaletan honela zehaztu da tarte bakoitzeko kontsumoa: tarte bakoitzerako ezarritako kontsumoa pertsona eta eguneko bider komunitatean bizi diren pertsonak bider fakturatutako aldiko egunak.

87.3. artikulua. Kontsumo tarteak.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren udaletan, tarte bakoitzeko kontsumoa 90 eguneko aldiari dagokio.

Kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera izango diren udaletan honela zehaztu da tarte bakoitzeko kontsumoa: tarte bakoitzerako ezarritako kontsumoa pertsona eta eguneko bider etxebizitzan bizi diren pertsonak bider fakturatutako aldiko egunak.

Ondorio horietarako, etxebizitzan bizi direnak udalak emandako azken udal erroldan agertzen direnak izango dira.

Etxebizitzan ez balego inor erroldatuta, kontsumo osoari aplikatzeko prezioa tarte handiarena izango da (330 litro baino gehiago biztanleko eta eguneko).

88. artikulua. Ura (biltzea, tratatzea eta banatzea).

Ura biltzeko, ur edangarria tratatzeko eta abonatuenganainoko banaketa kostuei dagokion kopurua da.

88.1. artikulua. Kuota finkoa.

Erabiltzaileek erabilgarritasunagatik aldian-aldian ordaindu behar duten zenbateko finkoa da, zerbitzua erabili edo ez erabil. Prezioa uraren erabileraren, kontagailuaren diametroaren eta hornitutako uraren motaren arabera aldatuko da.

Udaleko ureztatze ahoetan emandako altak kuota hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

88.2. artikulua. Kuota aldakorra edo kontsumoaren arabera.

Abonatuak aldian-aldian eta kontsumitutakoaren arabera ordaintzen duen zenbatekoa da. Prezioa uraren erabileraren, kontsumitutako ur-kantitatearen eta hornitutako uraren motaren arabera aldatuko da, eta, kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera diren udaletan, baita etxebizitza bakoitzean bizi den pertsona kopuruaren arabera ere.

88.3. artikulua. Prezioak eguneratzea.

Kontzeptu horri buruzko zenbatekoak urtero eguneratzeko baimena ematen zaio Gipuzkoako Ur Kontsultorioari honako hauek hartuz erreferentzia bezala: kontsumorako prezioen indizea, instalazio berriak eta horniketa sistemak martxan jartzetik eta ustiatzetik eratorritako kostua eta zerbitzuan izandako funtsezko hobekuntzak eta, hala balitz, lege berriak. Hori guztiori prezioa igotzea arrazoitzen duen nahitaezko txosten ekonomiko-finantzarioan jaso beharko da.

89. artikulua. Saneamendua eta arazketa.

Hondakin urak jasotzeko, garraiatzeko eta arazteko kostuei dagokien kopurua da.

89.1. artikulua. Kuota finkoa.

Erabiltzaileek erabilgarritasunagatik aldian-aldian ordaindu behar duten zenbateko finkoa da, zerbitzua erabili edo ez erabil. Prezioa uraren erabileraren eta kontagailuaren diametroaren arabera aldatuko da.

Udaleko ureztatze ahoetan emandako altak kuota hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

89.2. artikulua. Kuota aldakorra.

Abonatuak aldian-aldian eta kontsumitutakoaren arabera ordaintzen duen zenbatekoa da. Prezioa uraren erabileraren, kontsumitutako ur-kantitatearen eta, kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera diren udaletan, etxebizitza bakoitzean bizi den pertsona kopuruaren arabera izango da.

89.3. artikulua. Prezioak eguneratzea.

Kontzeptu horri buruzko zenbatekoak urtero eguneratzeko baimena ematen zaio Gipuzkoako Ur Kontsorzioari honako hauek hartuz erreferentzia bezala: kontsumorako prezioen indizea, instalazio berriak eta saneamendu sistemak martxan jartzetik eta ustiatzetik eratorritako kostua eta zerbitzuan izandako funtsezko hobekuntzak eta, hala balitz, lege berriak. Hori guztiori prezioa igotzea arrazoitzen duen nahitaezko txosten ekonomiko-finantzarioan jaso beharko da.

90. artikulua. Hornidura eta saneamenduko azpiegituren finantzazio plana.

Modu egokian ur edangarria hornitzeko eta hondakin urak arazteko beharrezko den azpiegitura berria jartzeko kostuei dagokien kopurua da, abonatu guztiek solidarioki ordaindu behar dutena.

90.1. artikulua. Kuota finkoa.

Erabiltzaileek aldian-aldian ordaindu behar duten kopuru finkoa da. Prezioa uraren erabileraren eta kontagailuaren diametroaren arabera aldatuko da.

Udaleko ureztatze ahoetan emandako altak kuota hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

90.2. artikulua. Kuota aldakorra.

Abonatuak aldian-aldian eta kontsumitutakoaren arabera ordaintzen duen zenbatekoa da. Prezioa uraren erabileraren, kontsumitutako ur-kantitatearen eta, kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren arabera diren udaletan, etxebizitza bakoitzean bizi den pertsona kopuruaren arabera izango da.

90.3. artikulua. Prezioak eguneratzea.

Kontzeptu horri buruzko zenbatekoak urtero eguneratzeko baimena ematen zaio Gipuzkoako Ur Kontsorzioari honako hauek hartuz erreferentzia bezala: kontsumorako prezioen indizea, hornidura eta saneamendu arloan egin beharreko inbertsio berriak eta finantza merkatuko interes tipoak. Hori guztiori prezioa igotzea arrazoitzen duen nahitaezko txosten ekonomiko-finantzarioan jaso beharko da.

91. artikulua. Zergak.

Fakturatutako kontzeptuei unean-unean aplikatzekoak diren zergak jasoko dira fakturretan.

XIV. ATALBURUA. ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA

92. artikulua.- baldintza orokorrak.

Toki Administrazioaren gaietan indarrean dagoen legedian ezartzen den prozedurarekin bat etorriz Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren jardueren eta erabakien aurka egiteko bidezkoak izan daitezkeen kasuen kalterik gabe, zerbitzuak eskaintzeko baldintzen inguruan sortzen diren erreklamazioak, zalantzak eta interpretazioak kasu bakoitzean eskudun den Administrazio Publikoaren dagokion organoak erabakiko ditu administrazio bidetik.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, justizia auzitegiei dagokie beraien jurisdikziopeko gaietan esku-hartzea alderdi interesdunak eskatuta.

Nolanahi ere, eta Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuetatik eratorritako harremanen ondorioz Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren eta abonaturako pertsonen artean sortzen diren auziak Donostiako, Tolosako, Eibarko, Bergarako eta Azpeitiko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean egongo dira, beste edozein jurisdikziori uko eginez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Arau hau indarrean jartzen den egunean kontagailuak irakurtzeko eta horien mantentze-lanak egiteko giltza behar duten kutxetek, erregistro kaxek eta gelek, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k homologatutako sarraila sistema jarri beharko dute, gehienez ere urtebeteko epean errekerimendua egiten zaienetik.
2. Ordenantza hau indarrean jartzen den egunean kontratu polizarik ez duten abonatuak ez dute sinatu beharrik izango horniketaren erabileran aldaketarik izaten edo egungo eskubideen eskualdaketa edo subrogazioa izaten ez den bitartean, salbu eta Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k horniketaren egoera erreala argitzeko beharrezkoa iritziko balu.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik, indargabetu egingo dira eta inolako baliorik eta eraginik gabe geratuko dira ezarrita dauden eta haren aurkakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen, erregelamendu eta ordenantza guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

ERANSKINAK

EDATEKO UR HARGUNEAK, NEURGAILUAK ETA INSTALAZIO BEREZIAK JARTZEKO ARAU TEKNIKOAK

Edateko ur hornidura edota saneamendu harguneak, neurgailuak eta instalazio bereziak jartzerakoan, Eraikuntzako Kode Teknikoan eta Gipuzkoako Urak–Aguas, S.A.-ren Arautegi Teknikoan aurreikusitakoa bete beharko da.

Sare publikoko ura erabiltzen duten hozte sistemak eta aire girotuko unitateek birzirkulaziorako instalazio bat eta dagokion erretentzio balbula izan beharko dute.

Aipatutako arautegi horiek beteta, hargunea onartzea dator, eta une horretatik aurrera ur hornidura ezarri ahal izango da, betiere, saneamenduko hargunea edo horren ordezkoko instalazioa eginda badago.

ERABILTZAILEEN SAILKAPENA SORTUTAKO HONDAKIN UREN ARABERA.

Erabiltzaileak mota hauetan sailkatzen dira:

A mota: Ura bere etxerako bakarrik erabiltzen duena, merkataritza erabileretara edo industriara zuzendu gabe, eta erabilera horrekin 500 m³/urte/etxebizitzako bolumena gainditu gabe.

B mota: 500 m³/urteko/etxebizitzako baino kontsumo handiagoa duten etxebizitzak eta 3.000 m³/urteko baino kontsumo txikiagoa eta 70 biztanleko baliokidea baino karga txikiagoa duten merkataritza, industria edo beste jarduera batzuk dituzten erabiltzaileak.

C mota: Ura merkataritza edo industria jardueretarako erabiltzen duena 3.000 m³/urteko baino kontsumo handiagoarekin edo udalekuak ez diren beste baliabide batzuetako ura erabiltzen duena edo 70 biztanleko baliokidea baino gehiagoko kargarekin.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak bete gabe, kolektoreetara gai erasokorrak isurtzen dituzten edo isuri ditzaketen prozesuak dituztenak edo metal astunak edo arazketa-prozesuetan duten eragin negatiboagatik materia inhibitzaileztat har daitezkeen beste elementu batzuk izan ditzaketenak.

KONTAGAILUAK EGIAZTATZEKO, ALTA EMATEKO ETA TITULARRA ALDATZEKO EGIN BEHARREKO LANEN PREZIOAK.

1. Hornidura altak.

Kontagailu berri bat jartzea beharrezkoa dute. Prezioak BEZ gabe.

Diametroa	Euroak
15 mm-ra arte	125,00
20 mm	155,56
25 mm	231,75
30 mm	281,49

40 mm	684,66
50 mm	983,08
65 mm	1.257,16
80 mm	1.545,00
100 mm	1.876

Alta berrietan, kontadorea, beti berria behar duena, Gipuzkoako Urak-ek jartzen ez badu, izen aldaketetan kobratzen den prezio bera kobratuko da.

2. Kontagailua egiaztatzea.

Erakunde edo laborategi ofizialetan aztertzea: zeregin horretarako behar bezala baimendutako metrologiako edozein erakunde edo laborategi ofizialek egiazta ditzake kontagailuak, Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontrola burutzeko bitartekoak arautzen dituen otsailaren 27ko 38/2001 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Egiaztapen gastuak dagokion erakunde edo laborategi ofizialak ezarriko ditu.

Egiaztapenetik ondorioztatzen bada kontagailua ez dabilela zuzen, eskatzaileak ez du ezer ordainduko.

3. Titular aldaketa.

Zerbitzuaren kontratuaren titularitatea aldatzeagatik honako hau ordainduko du eskatzaileak:

Etxeko erabilerak: 15,90 €. Etxeko erabilerak ez direnak: 23,90 €. Nekazaritzakoak: 15,90 €.

ZERBITZUAREN PREZIOA

1. Prezioak 88. artikulua arabera.

* Ura (biltzea, tratatzea eta banatzea). Eguneko kuota. Tratatutako ura.

Prezioak BEZ gabe.

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 88.2. artikulua.

Tarte bakoitzeko kontsumoa 90 eguneko aldiari dagokio.

– Etxebizitzakoak.

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan izan gabeko tarifa.

30 m³ arte 0,624

30etik 90 m³ arte 0,761

90 m³ baino gehiago 0,905

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan hartzen duen tarifa.

110 litro/(perts.*eguneko) arte 0,624

110etik 330 litrora/(perts.*eguneko) 0,761

330 litro/(perts.*eguneko) baino gehiago 0,905

– Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak.

30 m³ arte 0,624

30etik 90 m³ arte 0,761

90 m³ baino gehiago 0,905

– Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak.

50 m³ arte 1,051

50etik 500 m³ arte 1,188

500 m³ baino gehiago 1,314

**KONTAGAILUAREN DIAMETROAREN ARABERAKO KUOTA: € ZENT./EGUNEKO. 88.1.
ARTIKULUA**

	Etxebizitzakoak	Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak	Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak
--	-----------------	-------------------------------------	-------------------------------------------------

15 mm-ra arte	8,175	8,175	14,306
20 mm	19,348	19,348	33,860
25 mm	30,232	30,232	52,907
30 mm	43,535	43,535	76,186
40 mm	77,395	77,395	135,441
50 mm	120,930	120,930	211,627
65 mm	204,372	204,372	357,652
80 mm	309,582	309,582	541,768
=> 100 mm	483,721	483,721	846,513

Udaletako kontsumoa:

% 80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal ur-harguneentzat.

Suteen aurkako hornidura:

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 88.2. artikulua: 1,051. Kontagailuaren diametroaren araberako kuota. 88.1. artikulua: 14,306 € zent/eguneko.

* Ura (biltzea, tratatzea eta banatzea). Eguneko kuotak.

Goiko sareko instalaziorik gabeko ura. BEZ gabe.

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 88.2. artikulua.

Tarte bakoitzeko kontsumoa 90 eguneko aldiari dagokio.

– Etxebizitzakoak.

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan izan gabeko tarifa.

30 m³ arte 0,476

30etik 90 m³ arte 0,581

90 m³ baino gehiago 0,690

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan hartzen duen tarifa.

110 litro/(perts.*eguneko) arte 0,476

110etik 330 litrora/(perts.*eguneko) 0,581

330 litro/(perts.*eguneko) baino gehiago 0,690

– Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak.

30 m³ arte 0,476

30etik 90 m³ arte 0,581

90 m³ baino gehiago 0,690

– Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak.

50 m³ arte 0,881

50etik 500 m³ arte 0,996

500 m³ baino gehiago 1,101

KONTAGAILUAREN DIAMETROAREN ARABERAKO KUOTA: € ZENT./EGUNEKO. 88.1. ARTIKULUA

	Etxebizitzakoak	Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak	Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak
--	-----------------	-------------------------------------	-------------------------------------------------

15 mm-ra arte	7,175	7,175	12,556
20 mm	12,755	12,755	22,322
25 mm	19,931	19,931	34,879
30 mm	28,700	28,700	50,225
40 mm	51,023	51,023	89,290
50 mm	79,723	79,723	139,515
65 mm	134,732	1374,732	235,782
80 mm	204,092	204,092	357,160
=> 100 mm	318,893	318,893	558,063

Udaletako kontsumoa:

% 80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal ur-harguneentzat.

Suteen aurkako hornidura:

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 88.2. artikulua: 0,881. Kontagailuaren diametroaren araberako kuota. 88.1. artikulua: 12,556 € zent/eguneko.

2. Prezioak 89. artikulua araberera.

* Saneamendua eta arazketa. Eguneko kuota. Prezioak BEZ gabe.

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 89.2. artikulua.

Tarte bakoitzeko kontsumoa 90 eguneko aldiari dagokio.

– Etxebizitzakoak.

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan izan gabeko tarifa.

30 m³ arte 0,536

30etik 90 m³ arte 0,654

90 m³ baino gehiago 0,777

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan hartzen duen tarifa.

110 litro/(perts.*eguneko) arte 0,536

110etik 330 litro/(perts.*eguneko) 0,654

330 litro/(perts.*eguneko) baino gehiago 0,777

– Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak.

30 m³ arte 0,5136

30etik 90 m³ arte 0,654

90 m³ baino gehiago 0,777

– Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak.

50 m³ arte 0,901

50etik 500 m³ arte 1,018

500 m³ baino gehiago 1,128

**KONTAGAILUAREN DIAMETROAREN ARABERAKO KUOTA: € ZENT/EGUNEKO. 89.1.
ARTIKULUA**

	Etxebizitzakoak	Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak	Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak
--	-----------------	-------------------------------------	-------------------------------------------------

15 mm-ra arte	6,962	6,962	11,130
20 mm	16,477	16,477	26,342
25 mm	25,746	25,746	41,161
30 mm	37,075	37,075	59,271
40 mm	65,911	65,911	105,372
50 mm	102,986	102,986	164,643
65 mm	174,047	174,047	278,249
80 mm	263,645	263,645	421,489
=> 100 mm	411,946	411,946	658,577

Udaletako kontsumoa:

% 80ko hobaria. Ez da kuota finkorik ezarriko udal ur-harguneentzat.

Suteen aurkako hornidura:

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 89.2. artikulua: 0,901. Kontagailuaren diametroaren araberako kuota. 89.1. artikulua: 11,130 € zent/eguneko.

3. Prezioa 90. artikulua araberera.

* Hornidura eta saneamendu azpiegiturak finantzatzeko plana. Eguneko kuotak.

Prezioak BEZ gabe.

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 90.2. artikulua.

Tarte bakoitzeko kontsumoa 90 eguneko aldiari dagokio.

– Etxebizitzakoak.

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan izan gabeko tarifa.

30 m³ arte 0,232

30etik 90 m³ arte 0,283

90 m³ baino gehiago 0,336

Etxebizitzako pertsona kopurua kontuan hartzen duen tarifa.

110 litro/(perts.*eguneko) arte 0,232

110etik 330 litrorara/(perts.*eguneko) 0,283

330 litro/(perts.*eguneko) baino gehiago 0,336

– Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak.

30 m³ arte 0,232

30etik 90 m³ arte 0,283

90 m³ baino gehiago 0,336

– Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak.

50 m³ arte 0,389

50etik 500 m³ arte 0,440

500 m³ baino gehiago 0,486

KONTAGAILUAREN DIAMETROAREN ARABERAKO KUOTA: € ZENT./EGUNEKO. 81.H. ARTIKULUA

	Etxebizitzakoak	Nekazaritzakoak eta abeltzantzakoak	Industriakoak, merkataritzakoak eta gainerakoak
15 mm-ra arte	2,968	2,968	5,205
20 mm	7,024	7,024	12,320
25 mm	10,975	10,975	19,250
30 mm	15,804	15,804	27,720
40 mm	28,096	28,096	49,280
50 mm	43,900	43,900	77,000
65 mm	74,191	74,191	130,131
80 mm	112,384	112,384	197,122
=> 100 mm	175,600	175,600	308,003

Udaletako kontsumoa:

Salbuetsita.

Suteen aurkako hornidura:

Kontsumoaren araberako kuota (€/m³). 90.2. artikulua: 0,389.

Kontagailuaren diametroaren araberako kuota. 90.1. artikulua: 5,205 € zent/eguneko.

BESTELAKO ZERBITZU ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Fakturazioa gure hoditeriak hausteagatik.

Pertsona edo enpresaren batek hornidura sarea hausten badu, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k irizpide hauen arabera egingo du fakturazioa:

Alde batetik, hausturan bertan galdutako ur bolumena eta ura ematerakoan eta hornidura sarea garbitzeko erabilitako ur bolumena fakturatuko dira. Kostu hori honela kalkulatu da: aipatutako ur bolumenak bider ezarritako prezioa.

* Bolumenak kalkulatzeko kontuan izango da hodiaren diametroa eta, beraz, hodiak hornitu dezakeen emaria m^3/h -tan (1 m/seg-ko abiadura suposatuz,) bider kalkulatu den bora.

* m^3 -aren prezioa Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-ren uraren ziklo integrala arautzen duen Ordenantza honetako «Bestelako zerbitzu eta prezio publikoak» atalean indarrean dagoena izango da .

Bestetik, hausturak abonatuengan izandako eragina eta hausturaren egileak izandako zabarkeria maila kalkulatu da.

Koste hori kalkulatzeko, hausturak eragindako abonatu kopurua, urik gabe egondako denbora eta hausturaren egilearen zabarkeria maila biderkatu dira, eta emaitza hausturaren eraginez fakturatu beharreko zenbatekoa izango da.

* Hausturak eragin dien abonatu kopurua kalkulatzeko, ur ihesa konpontzeko egin den/behar izan den ur mozketak hartuko da kontuan.

* Urik gabeko denbora orduka kalkulatu da.

* Zabarkeria maila 0-6 bitarteko koefiziente baten bidez adieraziko da, eta, hori kalkulatzeko, ondorengo galdera hauei emandako Ezezko erantzun kopurua hartuko da kontuan:

- Kaltetutako sarearen kokapen planoak eskatu dituzte?
- Gure hodiaren kokapena "in situ" markatzeko eskatu digute?
- Egiten ari ziren lanak hasi aurretik abisatu digute lan horiek egin behar zituztela?
- Guk emandako instrukzioak jarraitu dituzte?
- Aurreikusi dute hausturaren bat izanez gero, hodia material eta langile homologatuekin konpontzea?
- Behin konponketa eginda, behar bezala konpondu da?

Azkenik, kostu osoari gehitu beharko zaizkio Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.-k haustura konpontzeko erabili behar izan dituen materialen eta pertsonalaren kostuak, prezio hauek kontuan izanik:

– Goiko eta beheko sareetako prezioak.		€
Programatutako irteera		171,50
Larrialdiko irteera		285,60
Langileen eta tresnen garraioa (ordua)	54,50	
Makineria industrialak edota obra zibila, materialak: tarifa * 1,15 €		
Ur-jarioak (m3)		1,35
Teleaginte kablearen ekometria	515,00	
Teleaginte seinalearen birsortzailea		1.470,00
Sareen informazioa: 45,00 € + 2 €/Ha.		
Ofizialaren prezioa. Ohizko lan ordutegia		46,70
Arduraduna. Ohizko lan ordutegia		65,60
Antolaketa/arduradunen burua. Ohizko lan ordutegia		105,10
Teknikaria. Ohizko lan ordutegia		157,50

– Beheko sareko prezioak	€/orduko
Ofizialaren prezioa. Ohizko lan ordutegia	46,70
Udala	40,47
Langile espezialista. Ohizko lan ordutegia	42,10
Udala	36,52
Arduraduna. Ohizko lan ordutegia	65,60
Udala	56,91
Antolaketa/arduradunen burua. Ohizko lan ordutegia	105,10
Udala	91,14
Teknikaria. Ohizko lan ordutegia	157,50
Udala	136,60
Saneamenduko kamioia. Ohizko lan ordutegia	186,00
Makina libratzailea. Ohizko lan ordutegia	165,30
Ureztatze-zutabearen alokairua	7,10

Ur-jarioak: 1,35 €/m³.

Ohizko lan ordutegia: 8:30-18:00, astelehenetik ostiralera. Lan ordutegitik kanpoko ordutegia astelehenetik ostiralera: 1,4 *ohizko lan ordutegiko prezioa.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 1,7 * ohizko lan ordutegiko prezioa.

– **Beheko sarearengatik udalei aplikatuko zaizkien prezioak uraren ziklo osora abonatuta ez daudenengatik.**

	Euroak
Beheko sarea (abonatuena kudeaketa soilik):	
Hiruhileko finkoa	1,492
Kontsumoa (irakurketa) (m ³)	0,129
Beheko sarea (abonatuak+mantenimendua):	
Hiruhileko finkoa	4,720
Kontsumoa (irakurketa) (m ³)	0,380

– Goiko sareko prezioak.	€/m³
Edateko ura	
Ur biltegiarekin	0,7538
Ur biltegiarik gabe	0,7298
Ur gordina:	
Ur biltegiarekin	0,6094
Ur biltegiarik gabe	0,5854

Kontsortziokoak ez diren Udalak: guztia, 0,471 €/m³-ko gehituta.

– Baimena, kolektorearekin lotura, hobi septikoak eta bestelako isuriak.

Hobi septikoen saneamendua eta bestelako isuriak:

$$P = 109 \text{ €} + K \cdot N \cdot P_s.$$

K: diluzio koefizientea. N: metro kubikoak.

P_s: 0,522 €/m³.

Saneamenduaren prezioa:

$$I = K \cdot V \cdot (P_s + P_c).$$

I: urtean ordaindu beharrekoa. K: koefiziente zuzentzailea.

V: Isuri bolumena m³/urteko.

P_s: saneamenduaren prezioa: 0,522 €/m³.

P_c: finantzazio kanonaren prezioa: 0,471 €/m³.

– Baimena/kolektorera lotzea 2020. urtean $I = 7,921 \cdot V$.

V: Isuri bolumena m³/urteko.

Isuri baimenak gainditzea: $P_{sup} = P_s \cdot V_d \cdot D \cdot ((K_1 + K_2 + K_3 + \dots + K_n) - 1)$.

P_s = Saneamenduaren prezioa = 0,522 €/m³.

V_d = Eguneko baimendutako bolumena. D = Baimendutakoa gainditutako egunak.

K = Parametro bakoitza zenbat aldiz gainditu den (beheko muga).

P_{sup} = P_s · V_d · D · 1000 debekatutako isurietan.

– Ur analisisien prezioak:

Edateko ura.

Ur kontinentalen analisisien prezioa.

Analisi mota	Prezioa (€)
Sarearen kontrola	112,00
EUA irteera kontrola	210,77
Osoa	1.614,44
Ur-bilketan	546,03
Txorrotan	234,85

Parametroak	Prezioa (€)
Aerobioak 22°C	28,20
Aerobioak 37°C	28,20
Aluminioa	28,20
Amonioa	28,20
Antimonioa	46,39
Artsenikoa	46,39
Bikarbonatoak	28,20
Boroa	28,21
Bromatoa	28,21
Kadmioa	31,34
Kaltzioa	28,20
Zianuro askea	47,03
Kloro askea	9,13
Kloruroak	28,20
Klostidium perf	28,20
Kobrea	31,34
Xurgatze-espektoaren koefizientea	15,68
Koliforme guztiak	28,20
Kolorea	15,67
Eroankortasuna	10,21
Kromoa	31,34
Gogortasuna	56,41
E. Koli	28,20
Enterokokoak	28,20

Fluoruroak	27,19
Fosforo guztia	39,20
Burdina	28,20
Fenol indizea	30,72
Langelier indizea	94,82
Legionella	61,27
Magnesioa	28,20
Manganesoa	28,20
Merkurioa	54,45
Zelula-barneko mikrozystina	30,72
Mikrozystina askea	30,72
Nikela	31,34
Nitratoak	28,20
Nitritoak	28,20
Ortofosfatoak	28,20
Partikulak	28,20
pH	10,21
Pigmentu fotosintetikoak	30,72
Beruna	31,34
Potasioa	28,20
Hondakin lehorra	22,01
Salmonella	61,27
Selenioa	46,39
Silizea	31,35
Sodioa	28,20
Sulfatoak	28,20
Tentsoaktibo anionikoak	30,72
TOC	62,66
Transmitantzia	16,24
trialometanoak	540,42
Uhertasuna	10,21
Zinka	28,20

Aldrina
Atrazina
Bentzo (a) pirenoa
Bentzo (b) fluorantenoa PHAs 529,83
Bentzo (g,h,i) perilenoa
Bentzo (k) fluorantenoa
Beta Endosulfanaa
DDD
DDE
DDT
Dieldrin a
Endosulfan Alpha
Endosulfan Sulfatoa
Endrina
Endrin Aldehidoa
HCH Alpha Isomeroa
HCH Beta Isomeroa
HCH Delta Isomeroa
HCH Gamma Isomeroa
Heptakloroa
Heptakloro epoxidoa
Indeno (1,2,3-Cd) pirenoa
Prometrina
Secbumetona
Simazina
Terbutilazina
Terbutrina

Hondakin urak
Ur kontinentalen analisisien prezioa.

Analisi mota	Prezioa (€)
Olio eta koipeak	89,44
Aluminioa	31,34
Artsenikoa	31,34
Kadmioa	31,34
Zianuro askea	47,03
Zianuro osoa dest.	80,17
Kloro askea	9,13
Kloruroak	28,20
Kobrea	31,34
Kolorea	15,67
Eroankortasuna	10,21
Kromo osoa	31,34
Kromo VI	31,34
DBO5	39,09
Digestioa	33,14
DQO	33,14
Eztainua	46,39
Fenolak	31,34
Fluoruroak	28,20
Fosforo guztia	28,20
Hidrokarburo guztiak	89,43
Burdina	31,34
Magnesioa	27,65
Manganesoa	31,34
Merkurioa	45,48
Nikela	31,34
Nitratoa	28,20
Nitritoak	30,72
N-NH3	28,20
NTK	49,63

N-guztia	81,50
Ortofosfatoak	28,20
pH	10,21
Zilarra	31,34
Beruna	31,34
Selenioa	45,48
Solidoak suspentsioan	22,01
Sulfuroak	30,72
Tentsoaktibo kationikoak	30,72
Tentsoaktibo ez-ionikoak	30,72
Tentsoaktibo anionikoak	35,65
Toxikotasuna	136,21
Uhertasuna	10,21
Zinka	31,34
Bost metalen azterketa: Burdina, Zinka, Kromo osoa, Kobrea eta Nikela	117,53
Hamar metalen azterketa: Burdina, Zinka, Kromo osoa, Kobrea eta Nikela, Kadmioa, Beruna, Manganesoa, Aluminioa eta Fosforoa	166,60

Ordenanza reguladora del servicio del Ciclo Integral del Agua del Ayuntamiento de Eskoriatza.

INTRODUCCIÓN

Con fecha de 24 de marzo de 2020, mediante Acuerdo Plenario, conforme a la Ley Básica 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se acordó que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa asumiera la gestión del ciclo integral del agua en el término municipal de Eskoriatza, que comprende la gestión de las redes en «alta» y en «baja», incluso la realización de las inversiones necesarias. A tal fin, el Ayuntamiento acordó aportar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, todas las concesiones, aprovechamientos de caudales, estudios, proyectos, redes e instalaciones y demás medios afectos a la prestación de los servicios consorciados, de los que es titular.

En el citado Convenio se establecía también que el Consorcio de Aguas ostentaría cuantas potestades, competencias, atribuciones, facultades, derechos y obligaciones que fueran inherentes a los servicios y fines objeto del convenio, de conformidad con la legislación vigente. En concreto, se delegaban en el Consorcio las facultades de gestión, liquidación y recaudación de las tasas del ciclo integral del agua.

La gestión del ciclo integral del agua por parte del Consorcio exige una adecuación de la Ordenanza, tanto en lo referente a los aspectos de gestión del servicio como de las tarifas a aplicar por el mismo, habiendo adoptado el Ayuntamiento el compromiso de aprobar la Ordenanza que, recogiendo lo anterior, le fuese propuesta por el Consorcio y que, en lo referente a las Tasas del Servicio recoge, en su Capítulo XIII y en el Anexo, el sistema tarifario a aplicar para la exacción de las Tasas, así como para su actualización, que se realizará por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa de acuerdo con lo establecido en el artículo 7.2 de la Norma Foral 2/2004.

En consonancia con lo anteriormente expuesto, a continuación se transcribe el articulado de la Ordenanza Reguladora del Servicio del Ciclo Integral del Agua así como las tarifas que, aprobadas por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, entrarán en vigor a partir de 1 de octubre de 2020.

Ordenanza reguladora del servicio del Ciclo Integral del Agua del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa

CAPÍTULO I. NORMAS GENERALES

Artículo 1. Objeto.

La Presente Ordenanza tiene por objeto regular las relaciones entre el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y las personas abonadas del Servicio de Aguas, en aquellos municipios en los que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es titular del servicio, señalándose los derechos y obligaciones básicas para cada una de las partes.

El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es una entidad local entre cuyas finalidades se encuentra la prestación de los servicios de abastecimiento y saneamiento en su ámbito de actuación, en aquellos municipios que así lo interesen, según los términos de la legislación del Estado y de la Comunidad Autónoma Vasca en cada momento vigente.

El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa gestiona los servicios a que se hace referencia en el párrafo anterior en régimen directo, a través de la Sociedad Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.

Esta Ordenanza será de aplicación general a los servicios de abastecimiento y saneamiento que se presten por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en aquellos municipios en los que esta Entidad gestione el Ciclo Integral del Agua.

Artículo 2. Normas generales.

El suministro domiciliario de agua potable se ajustará a cuanto establece la presente Ordenanza, a lo estipulado en la RD 314/2006 «Código Técnico de Edificación» y a los Reglamentos y/o Ordenanzas que tenga aprobado el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, en tanto no se opongan a los anteriores.

Queda excluido el ánimo de lucro en la prestación del servicio, debiendo mantenerse el equilibrio presupuestario mediante la aplicación de tarifas, aprobadas legalmente, que permitan la autofinanciación del mismo.

Artículo 3. Competencias.

La concesión de suministros de agua en sus diversas modalidades, y la evacuación y tratamiento de aguas residuales, será de competencia exclusiva del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, siendo Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. quien contratará por cuenta del mismo los servicios, mediante la formalización del oportuno Contrato de Suministro que regulará las condiciones que hayan de regirlos.

El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, a través de Gipuzkoako Urak, S.A. (GUSA) ostentará las siguientes facultades:

11. Supervisar los proyectos de obras de abastecimiento de agua potable y saneamiento.
12. Informar y, en su caso, promover las correcciones oportunas a los planes urbanísticos y proyectos de urbanización respecto de la red de distribución de agua y saneamiento en el área, sector, polígono o unidad de gestión que se trate.
13. Construir, ampliar, explotar y mantener el conjunto de instalaciones precisas desde las redes generales establecida o que se establezcan hasta los edificios o inmuebles objeto del suministro, siempre y cuando corresponda a GUSA según lo dispuesto en esta Ordenanza. De igual manera para las instalaciones de saneamiento, en los términos y condiciones previstos en la presente Ordenanza y demás normativa vigente.
14. Informar antes de la recepción de cualquier urbanización por parte de una Entidad local en lo que se refiere a la red de abastecimiento y saneamiento, cuando la misma no hubiera sido ejecutada por el propio servicio.
15. Prestar los servicios de abastecimiento y saneamiento a los usuarios de conformidad con esta Ordenanza y demás normativa vigente.
16. Informar y supervisar las condiciones que deben reunir las nuevas obras o cambios de actividad proyectados en cuanto a los servicios de abastecimiento y saneamiento.
17. Informar, tramitar, supervisar y ejecutar, en su caso, los nuevos enganches a las redes públicas de abastecimiento y/o saneamiento, realizando las tareas administrativas y económicas que se deriven.
18. Efectuar los trámites administrativos, técnicos y jurídicos que permitan formalizar y controlar las relaciones contractuales con los usuarios.
19. Facturar puntualmente los servicios de abastecimiento y/o saneamiento y asegurar la gestión del cobro.
20. Atender, tramitar y responder las demandas, quejas y reclamaciones formuladas acerca de los servicios de abastecimiento y/o saneamiento.

Artículo 4. Persona abonada.

A los efectos de la presente Ordenanza, se entenderá por persona abonada al titular del derecho de uso de la finca, local o industria, o su representante, que tenga contratado el suministro de agua potable.

Artículo 5. Entidad suministradora.

A los efectos de esta Ordenanza se considerará Entidad suministradora a la sociedad Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.

Artículo 6. Area de cobertura.

Esta Ordenanza será de aplicación general a los servicios de abastecimiento y saneamiento que se presten por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en aquellos municipios en los que esta Entidad gestione el Ciclo Integral del Agua.

CAPÍTULO II. OBLIGACIONES Y DERECHOS DE GIPUZKOAKO URAK-AGUAS DE GIPUZKOA, S.A. Y DE LAS PERSONAS ABONADAS

Artículo 7. Obligaciones de Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A.

Con independencia de aquellas situaciones que sean objeto de una regulación especial en esta Ordenanza, de las que puedan derivarse obligaciones específicas para Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A., ésta tendrá las siguientes obligaciones.

- De tipo general: Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A., con los recursos a su alcance y en el ámbito de su competencia, viene obligado a distribuir y situar en los puntos de toma de las personas abonadas el agua potable, con arreglo a las condiciones que fija esta Ordenanza y demás disposiciones que sean de aplicación.
- Obligación del suministro: Dentro del área de cobertura, definida en el artículo 6, Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, S.A. está obligado a conceder el suministro de agua a todo peticionario del mismo, y a la ampliación del suministro correspondiente a toda persona abonada final que lo solicite, en los términos establecidos en la presente Ordenanza y en las condiciones técnicas y económicas recogidas en las normas reglamentarias vigentes.
